

Sormenaren lurraldea ekitaldiz gainezka

52. Durangoko Azokak abenduaren 6tik 10era zabalduko ditu ateak. 400 nobedade eta 200 kultur ekitaldi hartuko dituen Azoka "sormenaren lurralde" legez definitu dute Gerediaga elkarteko kideek.



AbOIZ

- Erregetako menua •
- Arroitate menua, astelehenetik ostiralera •
- Adostutako menuak enpresentzat •
- Karta •

San Migel auzoa, 2 GARAI • Tel.: 946 228 240 • www.aboiz.es

ARETO NAGUSIA HITZAREN PLAZA DA!

ABENDUAK 6, eguaztena

12:00 'Hasieraren hazia' sarrera ekitaldia. Gerediaga elkarte.

14:00 Mendebaleko euskara. Koldo Zuazo.

14:30 Lanenpres Gida. Kepa Altube Eraña (Laneki Elkartea).

15:00 Gurasoei gutuna. Josu Maroto, Ekaitz Goikoetxea, Irati Goikoetxea, Mari Karmen Odriozola, Itxaro Mendizabal Amundarain.

15:30 Gernikaren egia: oroimen biziko herria. Ibon Meñika, Iñaki Aurrekoetxea, Oihana Cabello eta Ainhoa Larrabe.

16:00 Haurren artean mendizaletasuna sustatzeko egitasmoa. Luix Mari Zulaika eta Laureano Urkiza.

16:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldeak 30 urte betetzen ditu IRRIGINTZAN. Solasadia. Joxemari Agirretxe (Porrotx), Aiora Zulaika (Pirritx) eta Mertxe Rodriguez (Marimotots).

17:00 Luhuso, ETaren armagabetze zibilaren kontakizuna. Elkar-Berria

17:30 Hitz beste. 2003-2017. Anjel Lertxundi eta Martxelo Otamendi.

18:00 #Botaba Euskal Esamoldeen Erronka. Sari banaketa. Labayru Fundazioa, Bizkaiko Foru Aldundia, BBK, Gaztea Irratia eta sarietako babesleak

18:30 Umezurtzen aberria: Julen Kaltzada oroitz. Edorta Jimenez (egilea) eta Mikel Soto. Txalaparta.

19:00 Vasco, ¿cómo se llama tu país? Iñaki Azkoaga.

19:30 Filosofiaren defentsak. 12 idazleren bilduma. Solasadia. Agora filosofia elkarte.

ABENDUAK 7, eguena

10:30 IKASLE EGUNA. Liburu bat egingo dut. Ikasleentzako tailerra. Maite Mutuberriaren eskutik. Euskal Editoreen Elkartea.

13:30 Euskal artearen historia. Javier Viar Olloqui (autorea). Bilboko Arte Ederren museoko zuzendaria.

14:00 Euskal Hedabideen Urtekaria 2017: bidean aurrera egiteko urratsak. Euskal Hedabideen Behategia. UEU, UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Hekimen Elkartea

17:00 'Kultura, guztion eskura' aurkezpena. Egitasmo laburren aurkezpenak. Zeinu hizkuntzen arte jaialdia (Manos K Rien), "Bizikidantza" dantza integratzaileko motore (Kukai), Sormen artistikoa sustatzen duen formakuntza zentroa (Bilbao FormArte), Irakurketa Erraza mugimendua.

18:00 Herejeen alaba. Ander Berrojalbiz.

18:30 Mendeberrri 2025: marko pedagogikoa. Jon Altuna eta Begoña Pedrosa.

19:00 Nola sortu espazio komunikatibo komuna Euskal Herrian?

Josu Amezaga, Pilar Kaltzada eta Patxi Zabaleta. Ezkerraberri fundazioa.

19:30 K-Barakaldo Aldizkariaren 3. zenbakiaren aurkezpena. Javier Barrio, Txeru Garcia eta Aloña Intxaurrandieta.

ABENDUAK 8, barikua

10:30 Rocka puntua. Alberto Irazu.

11:00 Euskal Etnopoloa. Pantxoia Etchegoin (Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria).

11:30 "Olentzero kantuz Jalgi hadi Baionara" proiektuaren aurkezpena. Olentzeroren lagunak elkarte, Baionako udaletxea, Maialen Errotabehera.

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Solasaldia. Jon Garaño (zinemagilea) eta Katixa Agirre (idazlea). Maite Bidartek gidatuta.

14:00 Euskara eta hizkuntzari buruz. Hizketan semearekin. Beatriz Fernández

14:30 Euskal komikia. 1975-2017. Kike Infame eta Mikel Begoña

15:00 Eusklabo alaiak. Nobela grafikoa. Asisko Urmeneta.

16:00 La verdad alternativa, 30 mentiras sobre el bombardeo de Gernika. Xabier Irujo.

16:30 2018ko Ilargiaren Egutegia. Jakoba Errekondo eta Pello Zabala.

17:00 Sormen prozesua literaturan. Mahai-ingurua: Asier Serrano, Leire Bilbao, Mikel Valverde, Arantxa Urretabizkaia, Ander Izagirre. Moderatzailea: Goizane Landabaso.

18:30 GOGOETAREN PLAZA: Bidasoako zubia. Mahai-ingurua. Nahia Zubeldia (Lumi), Luzien Etchezaharreta (Maiatz), Jon Eiherabide (Zinegin) eta Ainara Gurrutxaga (Dejabu Panpin Laborategia). Nora Alberbidek gidatuta.

ABENDUAK 9, zapatua

10:30 Mina edo libertatea! Kepa Larrea Muxika

11:00 Protestantismoa Euskal Herrian. Sam Snogross (Liburuaren itzultzailea).

11:30 Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Miren Guilló.

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Solasaldia. Mixel Ducau (musikaria) eta Izaro (musikaria). Antton Iturbek gidatuta.

14:00 EuskarAbentura. EuskarAbentura Elkartea.

16:00 Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria. Iñaki Zabaleta Gorrotxategi (egilea), Jon Zarate Sesma eta Teresa Agirreazaldegia

16:20 Bertsolarien ahoz. Modernizazio prozesua eta identitate bideak. Gipuzkoa, 1830-1936. Luzia Alberro Goikoetxea (egilea).

16:40 Eromena, azpimemoria eta isiltasuna(k) idazten. Itxaso Martin Zapirain.

17:00 Egungo euskal komikiaren historia.

Jon Kortazar Uriarte (zuzendaria) Iratxe Retolaza Gutiérrez (alearen arduraduna)

17:30 Mendi literatura. Haritz Monreal Zarraonandia (egilea).

18:30 GOGOETAREN PLAZA: Sarerako sortzen. Mahai-ingurua. Lander Arretxea (Hiru Damatxo), Mikel Irizar (Gipuzkoako Foru Aldundia), Aiora Probatxoa (youtuberra) eta Gorpuzkingz (musika taldea). Iñaki Larrañagak gidatuta.

ABENDUAK 10, domeka

10:30 Ikasgai sozioekonomikoak Eskozia eta Kataluniako prozesuetatik. Mikel de la Fuente, Gorka Bueno, Joseba Barandiaran, Oskar Arantzabal

11:00 Euskal Herri itsastarra. San Juan Baleontzitik. Xabier Alberdi (Albaolako ikerketa saileko zuzendaria)

11:30 Nora goaz euskalduntasun honekin? Joxe Manuel Odriozola

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Solasaldia. Miren Gaztañaga (Antzezlea) eta Zaldieroa (Komikilaria). Oier Guillanek gidatuta.

14:00 Klaseak borrokan. Lurdes Rodriguez, Juan Manuel Piriz eta Eneko Ander Romero.

16:00 Loraldia 2018. Loraldia kultur elkarte.

16:30 Frantzia eta Nazioa. Jean-Louis Davant.

17:00 Basaburuko altxorak. Mikel Hiribarren.

17:30 Garapena gelditu. Xipri Arbelbide.

18:30 GOGOETAREN PLAZA: Teen kultura. Mahai-ingurua. Ainhoa Aierbe (Goazen!), lurdana Arcasuso (Azkue Fundazioa), Ziortza Onaindia (Galtzagorri), Josune Arakistain (Huntza). Zuriñe Maguregik gidatuta.



Matrikula zabalik

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45





240 stand eta 129 parte-hartzaile izango dira azokan.



Egunean 14 kontzertu eta 12 hitzaldi izango dira.

400 nobedade eta 200 kultur ekitaldi bilduko dira Azokako sormenaren lurraldean

Azokan inbertitzen den euro bakoitzetik hamar etortzen direla bueltan azaldu du Gerediagak

► **AZOKA** Jone Guenetxea Landako Gunean azken prestaketa lanak egiten ari dira abenduaren 6tik 10era Durangok 52. Azoka hartzeko. Egunotan, herri osoa euskal kulturaren erakusleho izango da. Nobedadez eta kultur ekitaldiz beteta dator azoka. 400 nobedade (257 liburu,

92 disko, 19 aldizkari, 5 bideo eta 27 bestelako), 240 stand, 129 parte-hartzaile... Guztira, 200 ekitaldi 700 metrotan, ekitalditik ekitaldira bost minutuko tarteagaz.

Eragin ekonomikoa
Nerea Mujika Gerediagako presidentea aurreratu duenez,

ANBOTOren egutegia Durangaldeko argitalpenetan

aurtengo Azokaren aurrekontua 646.000 eurokoa da. "Aurrekontu horregaz Azokak egiten duen ekarpena handia da; alde batetik, euskal kulturaren transmisio eta zabalkundeari dagokionez, eta, bestalde, alderdi ekonomikotik sektoreari eta Durangaldeari egiten diona".

Estimaten da Azokan inbertitzen den euro bakoitzetik hamar etortzen direla bueltan. "Nabarmentzekoa da, beraz, Azokaren itzulera ekonomikorako ahalmena". Gerediagako kideek Azokak Durangon duen eragin ekonomikoa azpimarratu dute.

Bertoko argitalpenak
Gerediaga elkarteak Durangaldeko argitalpenei zuzendutako standak jarriko du aurten ere. Bertan salgai izango da Lehior Elorriaga argazkilariak Durangaldeko herrietan ateratako argazkiekin osatutako ANBOTOren 2018ko egutegia.



Urak sortzen du bizia.

Uraren kudeaketa egokiak, gure **ONGIZATEA**









Bilbao Bizkaia
Ur Partzuergoa,
50 urte hiritarren
zerbitzura



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia



50
1967-2017

www.consorciodeaguas.eus

> **KARTELA** A. Maldonado

Aurtengo Durango Azokaren leloak dio sormenarena mugarik gabeko lurraldea dela. Berdina pentsatu behar izan zuen Jose Antonio Sistiagak. Horrela, Euskal Herrian (eta nazioartean) inor gutxik urrututako bidean aurrera egitea erabaki zuen donostiarrak. Sormena zabaltzeko saiakeran ekin zion zeluloidean margotu, eta horregaz pelikula egiteari. Hain zuzen ere, Durango Azoka iragartzen duen kartela horrelako diapositiba batean oinarritzen da. Irudiak “unibertsoaren sorrerara eginiko bidaia” iradokitzen du, egilearen berbetan. Gerediagako kide Txelu Angoitiak aurkezpenaren egunean azaldutakoaren arabera, sormenaren lurraldea iradoki gura dute aukeraketa-gaz. “Munduaren sorrerarako bidaia luzetik zeluloidean margoturiko milaka izar eta planetatik bakarra berreskuratu dugu, sormenaren lurraldea islatzeko”.

Sistiaga 1932an jaio zen, Donostian, eta Euskal Herriko margolari garrantzitsuenetako bat bilakatu da urteotako ibilbideari esker. 1966an Gaur Euskal Artisten Elkartean parte hartu zuen Oteiza, Txillida, Zumeta eta garaiko beste artista batzuekin batera. Margoketa ikasketak Frantzian egin zituen, Parisen. Urte hauetan, nazioarteko museo eta galerietan hainbat erakusketa egin ditu.

Zazpi minutuko artelana
Sormenaren lurraldeari irudia ematen dion diapositiba *Impre-*

Jose Antonio Sistiaga arduratu da Sormenaren Lurraldeari irudia emateaz

Impresiones de la alta atmósfera pelikula osatzen duten diapositibetako batean oinarritzen da kartela



Sistiaga eta Azokako antolatzaileak Sormenaren lurraldea DA! 52. Durango Azokako kartela aurkeztu zen egunean.

siones de alta atmósfera pelikula esperimentaleko diapositiba batean oinarritua dago. Pelikula 1989an egin zuen Sistiagak, kamerarik barik, eskuz eginko 10.000 diapositibagaz. Lana

zazpi minutuko bidaia bat da, eta ikuslea “munduaren sorrerara” darama, egilearen berbetan. Musika, berriz, Waslaw S. Beklemicheffena da. Donostiarraren berbetan, “poema bisual” bat zen lan hura, eta Oteizari eta Nijinskyri eskaini zien.

Zeluloidean margotzeko teknika 1968an eraibili zuen lehenbiziko aldiz egile donostiarrak, *Era erera balbu izik subua auraren* pelikula esperimentalean. Parisen zela ezagutu zuen zeluloide gainean margotzeko teknika. “Montparnassera joan nintzen, pelikula bat ikustera,

**1968. urtean
margotu zuen
lehenbizikoz
zeluloidean**

**10.000 diapositiba
margotu zituen
Sistiagak pelikula
labur horretarako**

eta haren aurretik film labur bat zegoen; lehen aldiz han ikusi nuen zeluloidean pintatu zitekeela, eta erabaki nuen neuk ere pintatu gura nuela pelikula”, azaldu du Jose Antonio Sistiagak. Teknika berritzailea zen, diapositiba guztiak eskuz margotuta zituen lehenbiziko pelikula zelako; oraindik ere, eskuz margotutako film luze baktzat hartzen da. Artista donostiarrak 17 hilabete luzez egon zen diapositibak banan-banan margotzen, eta, guztira, 100.000 diapositibatik gora margotu zituen bere eskuekin.



Jose Antonio Sistiaga eta Nerea Mujika Gerediagako presidentea.



**DOAKO
IKASTAROAK**

**2017-2018 IKASTURTEKO
IKASTAROEEN ESKAINTZA**

INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA

www.ibaizabalikastola.eus

Tel.: 94 621 58 77 · ikastaroak@ibaizabalikastola.eus
Izena emateko epea: ikastaroa hasi baino aste bat lehenagora arte

PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIA

Ur instalazioetako sorospena
AFDP0109

290

2017/12/21
2018/04/23

15:00/20:00
astelehenetik
ostiralera



Ibaizabal Ikastola Intxaurren kalea, 54. 48200 DURANGO

Iraganari berea eman ostean, etorkizuna ereiten hasiko dira sormen bekagaz

Euskararen alde lan egindakoak omentzen zituen Argizaiola ordezkatzeko du sormen bekak

➤ **ARGIZAIOLA** J. Derteano

Argizaiola sarien bidez, Durangoko Azokak 25 urte eman ditu euskararen alde lan egin dutenei errekonozimendua eskaintzen. Aurten arte. Aurrerantzean, izan zirenengan baino, izango direnengan zentratuko dira. Abenduaren 8ko ekitaldiak Argizaiola sariei agur esateko eta sormen beka berriari ongietorria emateko balioko du.

“Hausnarketa baten ondorioa izan da”, azaldu du Arantza Atutxa Gerediaga elkarteak. “25 urtez sasoi ilunetan euskararen alde egin duten erakunde, elkarte eta pertsonen ohore egin die Argizaiolak. Etapa hori pasatuta, etorkizunera begira jarri gara eta bide berri horretan sortzaileei aukerak irekitzea pauso ona izan daitekeela pentsatu dugu”, adierazi du erabakiaren inguruan.

Sormen beka bat abiatuko dute 2018ko Azokari begira. Euskarazko kultur produktu baten sorkuntzan, hasieratik amaierara, hasi ideiatik eta bere zabalkundera arte, egon dauden fase guztietarako laguntza

“Argizaiolaren etapa igarota, etorkizunera begira jarri gara”

izango da. Sortzaile berriek jaso ahal izango dute, bakarka zein taldeka. Deialdia urtero izango da, Azokan tokia duten kultur adierazpenetarako edota diziplina artekoa. Txandatu egingo dituzte kultur adierazpenak eta urtero deialdi publiko batean adieraziko dira.

2018ko irailean zabalduko dute deialdia eta hilabeteko epea utziko dute lanak aurkezteko. Hurrengo urteko Azokan jakinaraziko dute lehenengo irabazlea nor den.

‘Oroimenetik Ereitera’

Abenduaren 8an Szenatokian egingo duten ekitaldiari jarri dioten izenburuak —‘Oroimenetik Ereitera’—, ederto laburbiltzen du nondik datozen eta nora doazen. Lehenengo zatian Argizaiola saria jaso dutenak gogoratuko dituzte. Bideo era-



Euskararen alde han eta hemen luzaroan lan egin dutenentzat izan zen iazko Argizaiola saria.



Gerediaga Elkarteko kideek jaso zuten 2015eko Argizaiola.

kustaldia, musika eta dantza uztartuko dituen ikuskizun labur bat izango da. Ondoren, sormen beka aurkeztuko dute. Ezingo dute askorik aurreratu, oraindino oinarriak lantzen ari dira eta. “Bagabiltza, baina ondo landu eta borobildu beharreko gauza da”, dio Atutxak.

Kulturgintzaren hausnarketak Durangoko Azokaren bihotzetik

Laugarrenez kulturgintzaz jardungo dira Gogoetaren Plazan

Ohiko liburu eta proiektuen aurkezpenez gainera, euskal kulturaz hausnartzeko eta solasaldia izateko gunea ere badago Durangoko Azokako areto nagusian. Espazio horri Gogoetaren Plazak deitzen zaio, eta sortzaile, eragile eta industriako kideek aukera aprobetxatzen dute Azokako zurrumbilatik irten, geldialdi bat egin, eta gogoeta bultzatzeko. Bide batez, etorkizunerako ildo eta estrategiak garatzen laguntzeko baliatzen dira saio hauek.

Hiru gai landuko dituzte, bat egun bakoitzeko. Kazetari batek gidatu ohi ditu saioak. Abenduaren 8an, hego Euskal Herria eta iparraldean banatzen

dituen mugak sorkuntzan duen eraginari buruz jardungo dira Jon Garaño eta Katixa Agirre, Maite Bidarte kazetariaren gidaritzapean; Bidasoako Zubia deituko da saioa. Egun bat geroago, abenduaren 9an, sarera begirako sorkuntzari erreparatuko diote; Mixel Ducauk eta Izaro Andresek parte hartuko dute, Antton Iturbegaz batera.

‘Bidasoako zubia’, ‘Sarerako sortzen’ eta ‘Teen kultura’ izango dira gaiak

Zikloa amaitzeko, nerabezaroan kulturagaz edukitze den harremanaz hausnartzeko dute Patxi Huarte *Zaldieroak*, Miren Gaztañagak eta Oier Guilanek; Teen Kultura deituko da saioa.

Parte-hartzaile ugari


Kulturaren sektoreko lagun ugari parte hartu dute urteotan. Besteak beste, Fermin Muguruzak, Maialen Lujanbiok, Lorea Agirrek, Bernardo Atxagak eta Gorka Urbizuk. Saio hauek ikusgai daude sarean, Durangoko Azokako webgunean. Azokaren bihotzetik kulturgintzaren hausnarketa sakona dator, beraz, etorkizunerako urratsa izango dena.

Atxondoko XXI. nekazaritza eta artisautza azoka

ABENDUAK 3, DOMEKA

“Orain arte hurbildu ez dena gehiago gerturatzeko aukera ematen du Azokak”

‘Om’ diskoak izandako harrera “sinetsi ezinik” oraindik, otsailean kaleratu gura duten bigarren diskoan murgilduta dago Izaro. Durango Azokan stand propioa izango du aurten mallabitarrak



Izaro Andres Zelaia
Mallabia, 1993
Musikaria

Iker Iglesias

> MUSIKA Aitziber Basauri
Otsailean kaleratu gura duten bigarren diskoan buru-belarri lanean dabil Izaro. Hala ere, labetik ateratzeko prest egon bitartean, kanta arraroez osatutako ‘Hankapuntetan I’ lan laburra aurkeztuko du Azokan, “aperitibo moduan”. Aurten stand propioa jarriko du Izarok Iker Laurobagaz. Azokan sortutako “mikroklima bizitzeko gogoagaz” doa mallabitarra.

Durango Azokan erakustokia jarriko duzu Iker Laurobagaz batera. Aurten lehenengoz. Plaza garrantzitsua da Azoka? Plaza inportantea da, bai. Mallabikoa izanik, Durangaldekoa, betidanik bizi izan dudana plaza. Egia da halako burbuila bat lakoa ere badela. Behin hasita, eta amaitu arte, hor sartuta gaudela, eta halako mikroklima bat sortzen da. Iazkoa izan zen nire lehenengo Azoka sortzaile lez

eta, amaitu zenean, hainbat urtez egon izan den batek esan zidan badela Azokaren osteko halako sindrome bat. Badaukat gogo mikroklima hori bizitzeko, udaleku batzuetan lez. Aurten, erantzukizun handiagoagaz biziko dut, erakustoki propioa dugulako. Baina lasaiago ere bai, gure lekua dugulako bertan egoteko, eta jendea gugana badator, beraiekin egoteko ere bai. Oso gogotsu noa.

Jarraitzaileek bertan izango dute, besteren artean, ‘Hankapuntetan’ zure azken lana. Nola definituko zenuke?

Halako laborategi lan bat egitea onartu diot neure buruari, eta bigarren diskoa irten arte, gogoan nuen kantu arraragoak, disko baten kontzeptuan sartzen ez direnak batuko zituen bilduma egiteko; autobertsioaren bat edo beste ere bai. Animatu eta disko labur bat kaleratu dugu, *Hankapuntetan I*. Etorkizunean bigarrena, hirugarrena... gura den beste kaleratu ahal izateko.

“Bigarren diskoa otsailean kaleratuko dugula uste dugu”

“Azokak gure publikoa ezagutzeko aukera ematen digu”

Zer dute abesti hauek ‘arra-roak’ izateko?

Bere baitan abesti moduan disko batean lekurik ez duten kantak dira. *Errefuxiatuak*, adibidez. Plazer handia izan zen abesti hori Mikel Urdangarínegaz abestea, eta nonbait jaso gura nuen. Baita bertso estiloko doinuagaz sortutako *Eskaleok* ere. Iker Lauroba dut nigaz, gitarra bategaz. *Paradise* kantuarien Bossa Nova bertsoia ere batzen du.

Iaz ‘Om’ aurkeztu zenuen Azokan, eta abuztuaren amaite zenuen aurkezpen bira. Nolako harrera izan du?

Itzela izan da. Normalean lehenengo diskoak ez du horrelako oihartzunik izaten. Askotariko

jendea erakarri du eta bide horretan jarraitzeko motibazioa izan da niretzat. Horrek animatu nau *Hankapuntetan* bilduma sortzera, eta bigarren diskoagaz ere oso motibatuta nago. Azokan ere oso harrera ona izan zuen. Beste lan asko zeuden stand batean zegoen, gainera. Askok saldu zen. Jendeak Izaro ezagutu gura du. Oso pozik nago, sinetsi ezinik oraindik.

‘Hankapuntetan I’-ek harrera berdina izatea espero duzu?

Ez dakit disko luze batek adina arreta lortuko duen, baina bigarren diskoa irten arte, jendeak ondo hartuko duela esango nuke, aperitibo moduan. Lan txiki bat da, erraza, eta, segida izango duenez, ez du amaitzeko eperik. Atenporalagoa izango da.

Bigarren diskoan buru-belarri lanean zaude orain.

Bai. Nahasketa amaitzen gaude orain. Errebitsatzen. Diseinu lanak hastekotan gara. Bigarren diskoa otsailean kaleratuko dela uste dugu.

Baduzu zerbait aurreraterik?

Bigarren diskoa kontzientetagoa izango da, *Om* diskoagaz ez nuen eta halako harrerarik eta emailtzarik espero. Lasaiagoa, bareagoa. Ez abestiei dagokienez, neuri dagokidanez baino. Bandari protagonismo apur bat gehiago utzi diot, aurretik probatzen auzartuko ez nintzatekeen gauzak egiten utzi diot neure buruari. Zentzu horretan, *Om* baino ahaltsuagoa izango dela uste dut. Autokoizpena izan da hau ere, *Om* eta *Hankapuntetan I*ez.

Sortzaileak eta publikoa batzeko aukera ematen du Azokak?

Bai, eta musikari eta sortzaile lez oso positiboa da hori. Azokak gure publikoa ezagutzeko aukera ematen digu. Gainera, orain arte hurbildu ez dena gehiago gerturatzeko aukera polita ematen du Azokak. Uste dut Azokan dabilena normalean baino eskuzabalagoa dela eta ezagutzen ez duena ezagutzera irekiago dagoela. Durango ezin da gure publiko osoa egon, baina zati handi bat bai.



Azkonizaga

Edari banaketa
GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

NACEX

INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000
www.nacex.es

San Roke, 10-12 DURANGO
Tel.: 946 200 162 / Mob.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es

LASTER, KALITATEZKO 27 ETXEBIZITZA, GARAJEAK ETA LOKAL KOMERTZIALAK



- TERRAZA HANDIAK
- ESPAZIO ZABALAK
- INTERNETERAKO DOAKO KONEXIOA
- HORMA ARMAIRUAK
- ENERGIA ERAGINKORTASUN HANDIKO ETXEBIZITZAK

94 681 44 95 / 650 397 007

ERTZAINZAREN BIRIBILGUNEAN,
KURUTZIAGA ONDOAN

www.promotoraargolabe.com





Bisita gidatuetan parte hartzeko, aurrez eman beharko da izena.



Lehen aldiz stand berezi bat egongo da Durangoko Azokan.

Abenduaren 7rako bisita gidatuak antolatu dituzte, Azoka mundu guztiarengana heldu dadin; izena aurrez eman beharko da

Bisita gidatu hauetan parte hartu gura duten pertsona zein kolektiboek aurrez eman behar-ko dute izena.



**Goiburuko
aholkularitza
enpresa, enpresari,
profesional eta
pertsonentzat**



FISKALA



KONTABILITATEKOA



**MERKATARITZAKOA
ETA FINANTZARIOA**



LABORALA

***Bezeroa, enpresako bere kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu***

www.gualbiasesores.com

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.: 946 818 636 / 946 811 590

Faxa.: 946 203 637

info@gualbiasesores.com



Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

3D PRINT

- %10 tinta eta toner kartutxo bateragarrietan.
- %5 tinta eta toner kartutxo originaletan.

BETIXU JATETXEA

- %10 asteburuko otorduetan eta kartan, bariku eta zapatu gautetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15 sarreran.

ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- %5 lehenengo erosketan.
- %10 erosten den bigarren arropan.

IURRETA KOPISTEGIA

- % 10 eskola eta bulego materialean.
- %5 musika, opari eta liburuetan.

KATXARRO JATETXEA

- %10 asteburuetako menuetan.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15 eguzkitako betaurrekoetan, audilogian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- %10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
- %10 Gabonetako produktuetan: turroiak, polboroiak...

OPEN KLUB

- %20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Bosgarren gosaria doan.
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

UNDARRI BIKE

- %10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- %10 bizikletako osagarrietan.

URKI Prentsa eta paper denda

- %10 amantaletan.
- %10 jolasetan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5 liburuetan.
- %10 papergintzan.

UR URDAIBAI

- %25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



3D PRINT

- %10 tinta eta toner kartutxo bateragarrietan.
- %5 tinta eta toner kartutxo originaletan.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- %5 lehenengo erosketan.
- %10 erosten den bigarren arropan.



LANDAKO OPTIKA

- %15 eguzkitako betaurrekoetan, audilogian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- %10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



Anbotorenlagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

“Bibliako Genesisia bezain egia dira Baltzolako ipuinak”

Dimako Baltzola inguruko mitologiaren gainean eraiki du nobela berria Rafa Ugaldek

> NOBELA Joseba Derteano Bibliak dio Adan eta Eva izan zirela lurreko lehenengo gizakiak. Zientziak Big Bang-aren ondorioa eta izarren hautsaren seme-alabak garela teorizatzen du. Hona hirugarren aukera bat: Ama Lurrak Baltzolan eta Baltzolatik sortu zituen zeru-lurrak eta hezur-haragiak. Baltzola inguruko mitologiatik abiatuta, Sorreraren inguruko interpretazio berria eskaini du Rafa Ugalde Irigorri (Zornotza, 1961) Baltzolako Ipuinak nobela laburrean.

Aurreko legegintzaldian Dimako alkatea izan zen Ugalde. Hantxe daude Eusko Jaurlaritzaren partetik ondasun-kulturaren izendapena jaso duten Baltzolako eta Axlorreko kobazuloak. Esku artean sarritan izan duen gaia da, beraz. Gainera, umetatik ezagutzen duen ingurua da. “Xarma berezia du niretzat”, onartu du. Horri buruz zerbait

Baltzola ingurua ikertzen aritu diren denei omenaldia egin gura izan die

idatzi behar zuela buruan sartu, eta Sorrera hartu zuen abiapuntutzat. “Genesisia ez dago metodo zientifikoz demostratuta. Beraz, Baltzolako Sorrera Bibliakoa bezain egia da”, azaldu zuen nobela aurkezteko Diman egindako ekitaldian.

Haur literaturatik eta helduenetik, bietatik duen liburua da, eta hainbat erreferentzia egiten dizkie Dima inguruko tokiei.

Nobelak atal bi ditu. Sorrera izeneko aurrenekoan Ama Lurrak zerua, hodeiak, ibaiak... zelan sortu zituen kontatzen du bost pasartetan. Bigarren zatia gizakiei dagokie. Ama Lurra-



Rafa Ugalde Irigorri
Zornotza, 1961
‘Baltzolako Ipuinak’
nobelaren egilea

Rafa Ugalde Dimako liburutegian, nobela berriaren harira egindako aurkezpenean.

ren erraietatik jaio diren seme-alabek munduan ibiltzen eta beldurrei aurre egiten ikasi behar dute. Beldur dira, Zezengorri piztiak ez dituelako bakean uzten, eta ez dute hari aurre egiteko armarik. Baina, entzun dutenez, badago harri mota bat, silexa,

armak egiteko moldatu daitekeena. Haren bila doaz. Lortuko ote dute helburua? Baltzolan silexaren erabilera zientifikoki dokumentatuta dago. “Barrika ingurutik edo Gasteiz baino haragotik ekartzen zuten, sasoi hartan komertzio bide moduak

zeuden adierazgarri”, azaldu zuen Ugaldek.

Liburuagaz Baltzola eta Axlor inguruak ikertzen ari diren eta aritu diren guztiei omenaldia ere egin gura izan die Ugaldek, batez ere Joserra Aiartzari eta Lydia Zapata zenari.

disfruta BIZKAIA

TURISMOA

BIZKAIAN

GUZTIA ZURE ESKUETAN

www.disfrutabizkaia.com

Aurkitu non jan, zer egin eta non egin lo Bizkaian

Asociación de Hostelería Bizkaia Ostalaritzako Elkartea

Bizkaiko Ostalaritza Elkarteen web turistikoa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Babesarekin



IURRETA

Tellitu-n hurrengo eraikuntza

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

**Etorri
ikustera!**

**DURANGO
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO**

Etorri ikustera geratzen diren 2 etxebizitzak!

*Durango herrigunean
Energia eraginkortasun
handiko etxebizitzak*

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Irakurlea harritzeko erabili da andren irudia, heresia zein txarra zen frogatzeko”

‘Herejeen alaba’ saiakera laburra aurkeztuko du Ander Berrojalbiz durangarrak Durangoko Azokako areto nagusian

>SAIAKERA Aitziber Basauri

Urteak daramatza Ander Berrojalbizek Durangoko herejeen inguruan ikertzen. Iaz ‘Los herejes de Amboto’ liburua kaleratu zuen, eta, orain, ‘Herejeen alaba’ saiakera lana (Pamiela) kaleratu berri du, Joseba Sarrionandiak kartzelan idatzitako ‘Kristalezko bihotza’ narraziotik abiatutakoa. Abenduaren 7an aurkeztuko du liburua Khantoria taldeko musikariak Azokako Aretot Nagusian.

Joseba Sarrionandiaren ‘Kristalezko bihotza’ narraziotik abiatu duzu ‘Herejeen alaba’. Hala da. Asko egon ez arren, badaude Durangoko herejeei buruzko fikziozko zenbait lan: *Gilen garateako batxilera* (Mario Onaindia) edo *Kattalin* (Titi Martinez de Lezea). Hala ere, paradoxikoki, Sarrionandiaren *Kristalezko bihotza* (Narrazioak Elkar, 1983) da Durangoko herejeei buruzko testurik irakurriena. Askok etxean duten Durangoko herejeei buruzko testu bakarra. Bertan, Orreagako monje batek baimena eskatuko du bidaia bat egiteko. Durangon herejeak daudela-eta, hona dator, eta iristean jakingo du 12 hereje erreko dituztela biharamunean, tartean neskato bat: herejeen alaba.

‘Herejeen alaba’ istorio horretan oinarritzen da?

Hori da Sarrionandiaren testuaren abiapuntua. Ez dugu argituko, baina irakurlea harritzea lortzen duen norabide aldaketan egiten du idazleak *Kristalezko bihotza* narrazioan. Askok pentsatuko dute bere irudimenetik sortutako gertaera izan zela, baina iturri historikoak ditu oinarri, eta nik gertaera historiko horren genesisia aurkitu dut XII-XIII. mendeetako heresia-



Ander Berrojalbiz Etxebarria

Durango, 1983
Idazlea eta musikaria

ren hastapenen inguruan ikertzen ari nintzela: 1163an, Kolonian (Alemania) zenbait hereje atzeman zituzten eta erretzera kondenatu. 1164koa da horri buruzko lehen iturri historikoa. Durangon 1440-1500 arteko urteetan izan zen herejeen kontrako errepresiorik handiena, eta Burgosko Apezpiku Alonso de Cartagenak bere apezpikutzatik gertu dauden mendi ba-

tzuetakoko herejeak ditu hizpide 1449an idatzitako liburuan; Durangokoak, XX. mendean kaleratutako liburu horren edizio modernoaren hitzaurreak defendatzen duenez. Hitzaurre hori jaso zuen Larrakoetxeak, 1950-1960 urteen artean Durangoko idazkaria izan zenak, Durangoko herejeei buruz idatzitako liburuan, eta gutxi batzuen artean banatutako liburu ho-

rren kopietako bat Sarrionandiaren eskuetara heldu zen.

1163ko Koloniako jazoeran oinarritzen da ‘Kristalezko bihotza’-ren giltza den gertaera?

Bai, baina kontaketa eraldatzen joan da, gero eta literarioagoa bihurtuz. Egile edo idazle bakoitzak interes politiko edo ideolo-

“Historiaren zati izan zena istorio bihurtuko da, aldatuz joango da”

“Interes propioak zabaltzeko erabili izan da andren irudia”

giko propioak, ideia moralak, zabaltzeko erabiliko du andren edo neska gazteen irudia. Hartara, historiaren zati bat izan zena istorio bihurtuko da, aldatuz joango da. 1163tik 1223ra lau iturri historiko daude, gero eta literarioagoak. Sarrionandiak erakutsi du gertaera hark orain ere harritu dezakeela irakurlea.

‘Herejeen alaba’-ren gakoetako bat andren irudiaz egin den erabileran dagoela diozu.

Irakurlea harritzeko erabili izan da emakumearen irudia, baina ez Sarrionandiak lez gozamen estetiko bat sortzeko, heresia zein txarra zen frogatzeko baino. Ustez ahulak zirenak ere —emakumeak— heresiaren, deabruaren atzaparretan jausten zirela erakusteko. Ahulagoztat hartzen zituztenez, erruga-beagotzat ere bai. Gizonei aurre egiten zieten andrak arriskuak zirela zioten, haiengan-

dik urrundu beharra zegoela, eta jarrera irmo eta boteretsua zuten neskek deabruagaz lotura zutela defendatzen zuten egile batzuek; heresiaren eskuetan jausi eta erretzera kondenatuta amaitzen zutela zioten. XIII. mendera arte egiten zen erabilpen hori. Bi mende geroago, judaismotik bilakatutako kontrako errepresioaren testuinguruan, Burgosko apezpiku Alonso de Cartagenak erabiliko du.

Hiru zati ditu liburua.

Bai. Lehenengoan *Kristalezko bihotza* narrazioaren 1983ko bertsioa jaso dugu, 2011rako (*Narrazio guztiak*, Elkar) egindako zenbait moldaketa gehituz. Euskara idatziak bizitako momentu esperimentalen arteko paralelismoa —XV-XVI mendeetan eta 80ko hamarkadan—, indartu gura duen hirugarren bertsio bat sortu dugu. Nire saiakera laburra jasotzen du bigarren zatia, eta, azkenak, Durangon egondako heresiaren errepasoa egiten du: Anbotoko herejeei eta Durangoko herejeei buruzko nire testu bana, eta Sarrionandiaren beste bat batuz, *Durangaldeko herejeak eta Artekalako manzaneroa* (Durangoko Ibaizabal aldizkaria, 1979).

Fikzioa eta errealtatea nahastena dira?

Biak nahastena dira nire ikerlanagaz kontatzen dudana istorioan. Gero eta fikziozkoagoa da Koloniako gertaera. Burgosko apezpikuak apokrifiko bat ere sortu zuen, benetakoa lez saldu gura den kontaketa faltsua.

Harrera ona espero duzue?

Bai. Azokako nobedadeetako bat da, euskaraz idatzia, eta Joseba Sarrionandiak bermea ematen du. Fikzioa eta historia nahastena ditu liburua eta irakurterraza da.

DESGUACES PILASTRA

AUTOAK DESEGITEKO LANTOKI BAIMENDUA

- Erabiltzen ez diren ibilgailuak deskontaminatzeko zentro baimendua EU2 / 097 / 04 gestorea.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

GRUA ZERBITZUA

IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJA EMATEA
 eta Faxa: 946 218 079
 OSAGARRIEN SALMENTA
 : 946 201 787

Fauste Auzoa, 18
 Zugastietara bidean
 48215 IURRETA
 gestion@desguacespilastra.com

1955an sortua

GALLASTEGI
harategiak

ZALDIBAR
Zalduasolo, 8. ☎ 946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
☎ 946 812 247
gallastegiharategiak.eus

Magdalena Gozotegia
ARTISAU-GOZOGINTZAKO LANTEGIA

Urtero bezala gure dendan eskaintza zabala aurkituko duzu gure artisauro-Produktuetan, bai okindegikoetan, bai gozotegikoetan

Fray Juan Zumarraga, 3 · DURANGO · Tel.: 946 810 929

Euskal Herrian eta euskaraz sortutako lanez gozatzeko aukera, Irudienean

Film luze zein laburrak, fikzio-esperimentalak, haurrentzako filmak eta dokumentalak egongo dira



Abenduaren 6an Jose Antonio Sistiagaren bi filmekin irekiko dute Irudienea.

> IRUDIENEA M. Zuazubiskar Zazpigarren urtez, Euskal Herrian eta euskaraz sortutako lanez gozatzeko aukera izango da abenduaren 6tik 10era bitartean Irudienea gunean. Beste behin, Zugaza zineman film luze zein laburrak, fikzio-esperimentalak, haurrentzako filmak zein

dokumentalak eskainiko dituzte. “Dokumental asko, gehienak ez esatearren, Euskal Herriko historia, gertakari, garaien ingurukoak dira. Gure herria eza-gutzeko aukera ematen diguten altxor historikoak”, adierazi du Johana Olabarria Irudieneako arduradunak.

Horrez gain, zinemazaleek mahai-inguruak, solasaldiak eta tailerrak ere izango dituzte aukeran.

Aurtengoan ere, Irudienea ez da zinema-areto soil bat izango, ikus-entzunezkoen arloko jakintza partekatzeko elkargune bat baizik. “Aurtengoan ere saskia

‘Errementari’ eta ‘Handia’ filmak ikusteko aukera egongo da

Irudienean haur eta gazteentzako filmak ere eskainiko dituzte

bete uzta fresko izango da, publikoan hamaika zapore eta zirra eragingo dituen”, gaineratu du Olabarriak.

Abenduaren 6an, Irudieneak bost eguneko bidaia bi film laburrekin abiatuko du, Jose Antonio Sistiaga aurtengo kartel egilearen filmekin. Esaterako, Sistiagaren *Impresiones en la alta atmósfera* lana eskainiko dute. 7 minutuko iraupena duen filma eskuz margotutako 10.000 diapositibaz osatuta dago, eta ikusleak munduaren sorrera-bidaia egitea du helburu.

Bestalde, euskal zinemagintzako aurtengo nobedadeak ikusteko aukera paregabea ere

eskaintzen du Irudienea guneko programazioak. Esaterako, abenduaren 8an, 15:30ean, Errementari filmeko making off-a eta irudi batzuk ikusteko aukera izango da. Horrez gain, Paul Urkijo arabarrak zuzenduriko filmeko sortzaile eta protagonistekin hitz egiteko aukera ere izango da.

Bestalde, abenduaren 8an, 18:00etan, Aitor Arregi eta Jon Garaño zuzendarien ‘Handia’ filma eskainiko dute Irudienean. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, film honetako zuzendari eta aktoreak ere saioan izango dira.

Aipatu behar da, abenduaren 8an, euskal film arrakastatsuen inguruko mahai-inguru bat ere egongo dela Irudienean. Bertan, euskal zinemagintzako hainbat profesional eta aditu honelako galderei erantzun bat bilatzen ahaleginduko dira: zergatik dute arrakasta film batzuek eta beste batzuek ez? Zer ikusten du euskal ikusleak zinemara doanean?

Horrez gain, Irudienea haur eta gazteentzako gune ere izango dela jakitera eman dute antolatzaileek. “Gazteak sormenaren lurraldeko kide ditugu eta beraiantzat fruitu koloretsu eta freskoak bildu ditugu”, adierazi du Johana Olabarriak. Hori horrela, aurtengo Azokan, bost film laburrek osatutako *Ezberdintasunean Hezi* proiektua, Printze Txikia eta Laban Mamu Txikia eskainiko dituzte.

IRUDIENEA IKUS-ENTZUNEZKOEN PLAZA DA!

ABENDUAK 6, eguaztena

10:00 “Impresiones en la alta atmósfera” eta “Paisaje Inquietante-Nocturno” filmak. Jose Antonio Sistiagak fotogramak margotuz eginiko film laburrak

12:00 Aterabideak. Gernikako Sarek “herri ekimenaren bidez” eginiko film laburra

13:00 Estitxu. Dokumentala

14:30 Ezberdintasunean hezi. Haurrei zuzenduriko 5 film labur. Bizipoz Elkartea eta Irrien lagunak.

15:30 Zipi eta Zape. 8 - 12 urte bitarteko haurrei zuzendua. Zineuskadiren eskutik.

17:15 Areka film laburra. Kimuak aurkeztua.

17:30 Euritan film laburra. Kimuak aurkeztua.

18:00 Euspot. Film laburren lehiaketako irabazleen lanen aurkezpena.

18:30 Kaxa Hutsak. Euskal exiliatuen esperientziak. Estreinaldia

ABENDUAK 7, eguena

10:00 IKASLE EGUNA. Marrazki bizidunen tailerra. Ikasleentzat. EHUko arte ederreko ikasleak - Zineuskadi. 3 saio.

16:30 IKASLE EGUNA. Bikoizketa tailerra. Irekia. Pixier eta zineuskadi. 2 saio

ABENDUAK 8, barikua

11:00 ‘Handia’ efektua: zerk mugitzen gaitu? Mahai-ingurua. ZineaSortzen atariak antolatua

12:30 ‘Gernikaren egiak’ dokumentala. IPES elkarte.

13:45 ‘Beloagako gaztelua, memoriaren gotorlekua’ dokumentala. Nafarroa independentearen historia. Nabarralde.

14:30 Zinemagintza eta euskalkiak. Mahai-ingurua. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

15:30 Errementari. Lehen irudiak, making-offa eta zuzendari eta aktoreekin hizketaldia.

16:30 Pasaiako badia. Dokumentala.

18:00 ‘Handia’ filma. Zuzendari eta aktoreak bertan izango dira. Sarrera 5,50 euro.

ABENDUAK 9, zapatua

11:00 Bi txirula. Iñigo Garcia Agirrezabalaga zuzendariaren lehen film luzea.

13:00 ‘Merli’ telesailaren estreinaldia. EITBren eskutik.

14:15 ‘Tosta’ dokumentala. Euskaltzaleen Topagunea eta Donostia 2016.

15:30 ‘Laban. Mamu txikia. A ze beldurra!’ 2-4 urte bitarteko haurrei zuzendua. Zineuskadiren eskutik. Hiru Komunitatearekin lankidetzan, etorri zaitezte moztortuta!

16:30 ‘Ama, nora goaz?’ dokumentala

17:45 ‘Ilunpetan’ film laburra.

18:00 ‘Zulo’ film laburra. Donostiako Zinemaldian aurkeztua.

18:30 ‘Joseba Sarrionaindia. Hemen eta han’ dokumentala.

ABENDUAK 10, domeka

11:00 Mintzalagunak. Erreportajea. Goienak Debagoienako mintzalagunekin batera eginiko erreportajea.

12:00 ‘Kaixo.com’ atariaren 20. urteurrena. Dokumentalaren estreinaldia.

13:15 ‘Nomofobikak’ websailaren 6. atalaren estreinaldia. 6 atalak jarraian ikusteko aukera egongo da. Aktoreekin solasaldia.

14:00 ‘Suargi’ dokumental laburra. Aurre-estreinaldia

15:30 ‘Printze txikia’. 8 urtetik aurrerako haurrei zuzendua. Zine euskaraz programa. Zineuskadin eskutik.

17:30 “Pelota II” dokumentala.

19:00 Rally Topa. Lehiaketaren aurkezpena.



RENAULT
Passion for life

Gama Berria

Crossover by Renault



Urtea amaitu baino lehen,
APROBETXATU Gaurisa lurreta-ko **ESKAINITZA BEREZIAK**.

Crossover gama berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,6 eta 6,2 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 95 eta 156 bitartean.

Renault gomendatzen du **elf**

renault.es

GAURISA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA

www.gaurisa.com

NAFARROAKO GOBERNUA

ARGITALPENAK - NOBEDADEAK

SAREAK EHOTZEN
San Kristobal Fuerteko
presoekin elkartasuna izan
zuten emakumeak (1934-1945)

TEJIENDO REDES
Mujeres solidarias con los
presos del Fuerte de San
Cristóbal (1934-1945)

Amaia Kowasch Velasco
15 €



LOS CINES DE NAVARRA
1940-1990

Hainbat egile
20 €

NAFARROAKO PAISAIK
Oinez eta begiz
LOS PAISAJES DE NAVARRA
Recorrer y contemplar

Javier Pagola Lorente
Argazkiak: Pello Pagola
Marrazkiak: Edurne Iriarte
20 €



LANGILERIA BERRI
BATEN ERAKETA
Iruñerria 1956-1976

Nerea Pérez Ibarrola
15 €


NAVARRA. MÚSICA
Maria Gembero-Uztárriz
24 €



NAVARRA. NAVARRE. NAFARROA
Bi edizio: gaztelania, ingelesa,
euskara eta gaztelania, frantsesa,
euskara

Roldán Jimeno Aranguren bere
aita José María Jimeno Jurioren
testuen gainean
Argazkiak: A. Lacunza, J. Ederria
24 €

NAFARROAKO ATLASA
Errepideak. Turismoa.
Ingurumena. 2017
Bi edizio: Gaztelania eta euskara
13 €



ARTEA ETA ARTISTAK
NAFARROAKO JAUREGIAN
ARTE Y ARTISTAS
EN EL PALACIO DE NAVARRA

Ignacio J. Urricelqui Pacho
15 €



Guztira, arlo askotariko 54 artisautza postu batuko ditu Euskal Dendaren 22. aldiak Durangoko merkatu plazan.



Euskal Herriko artisauen sarea ehuntzen jarraitzeko asmoa du Euskal Dendak

Aurrera begirako estrategien artean, jendartearen beharrian berriei egokitzea nabarmentzen du Arbasok

> EUSKAL DENDA A. Maldonado Sentimenduz eta emozioz beteta dator aurtengo Euskal Denda. Berriki hil diren Juan Unzueta eta Jose Ramon Salmanton saskigileen omenez, bien lanak erakusgai egongo dira artisau azokan. Euskal Denda iragaritzeko aurtengo kartelean honako leloa irakurri daiteke: 'Bizitza ehunduz'. Lelo horregaz, bi saskigileek saskigintzan eginiko ibilbidea eta Arbasogaz izandako harremana gogoratu gura dute. "Bizitzak jarraitu egiten du eta, saskiekin bezala, bizitza bera ehuntzen jarraitu behar dugu", azaldu du Bernat Vidal Arbaso elkarteko lehen-dakariak.

Besteak beste, Bea Unzueta saskigilea ere egongo da Euskal Denda honetan. Unzueta bere familiako hirugarren belaunaldi saskigilea da; Juanen alaba da Bea. Arbasoko lehendakariaren berbetan, beharrezkoa da belaunaldi berriak babestea. "Ofizio tradizionalak galtzen ari dira, belaunaldi aldaketarik ez dagoe-

lako, eta sarri ez gara ohartzen beranduegi den arte", kexatu da Vidal. Hori dela-eta, dei egiten die erakundeei artisautza kontuan hartzeko.

Egungo artisauak askotariko artista bilakatu dira Vidalen berbetan. "Tradizioagaz lotuta egon arren, egungo beharriari egokitzen ari da artisautza", adierazi du. Hori da, gainera, ofizioaren etorkizunaren berme bakarra. Horrela, Unzueta bera aipatu du adibide legez. Durangarrak gailu elektronikoentzako zorroak egiten ditu eskuz landuriko zuntz begetalagaz.

Postuen %37, berriak

Euskal Denda artisautza sektorearen erakustokirik handiena bihurtuko da abenduaren 6tik 10era. Durangoko merkatu plazan jarriko dituzten 54 postuetatik 20 berriak izango dira. Beraz, postuen %37 berritu dituzte aurtengo aldiari. "Argi geratzen da sektorean belaunaldi aldaketa datorrela, eta erakundeek kontuan hartu beharko lukete

20.000

lazko Euskal Dendak izandako bisitari kopurua da.

hori, laguntzeko", Bernat Vidalen ustetan.

Azpimarratzekoa da Bizkaiko postu kopurua: 26. "Egon-kortu egin da Bizkaia ekoizle moduan", azaldu du. Zazpi Durangaldekoak izango dira, eta horietako bik lehenengoz ezarriko dute postua: Elorrioko Gorakatek eta Berrizko Felix Larrañagak. Lehenbizikoak larrugintza berria jorratzen du; Larrañaga, berriz, egur tailagina da. Honako hauek dira gainerako bostak: paperezko bitxigintza Elorrioko Anitha Molen eskutik, Rosa Etxabe zeramika eta grabatzailea, Restaurarte eraberritzeak (2010ean stand onenaren saria irabazi zuen),

Bea Unzueta zuntz begetala eta Eneko Unzalu bitxigilea.

Bizkaia izango da ordezkari gehien izango dituen herrialdea. Gipuzkoatik hamahiru etorriko dira, Nafarroatik zortzi, Arabatik sei eta Lapurditik bakarra.

Artisautzaren azoka nagusiak 20.000 bisitari izan zituen iaz, eta marka horri eustea gura dute. "Sektorearentzat bultzada da Euskal Denda, are gehiago, krisi garai hauetan", adierazi du Vidalek.

Lehiaketa, urtero legez

Ekoizleak bertatik bertara eza-gutzeko aukeraz gainera, bestelako eskaintzak ere baditu Euskal Dendak. Lanbidea ezagutze-eramateko, erakustaldiak eta tailerrak egingo dira, besteak beste. Bestalde, "artisau despistatua" lehiaketan ere parte hartu ahalko dute bisitarrak. Posturik onena zein den ere aukeratu ahalko dute. Vidalen berbetan, tailer eta erakustaldi horiek egingen dute berezi Euskal Denda.

DATUAK

ERAKUSTOKIAK

- Guztira: 54.
- Arabatik: 6.
- Bizkaitik: 26 (7 Durangaldetik).
- Gipuzkoatik: 13.
- Nafarroatik: 8.
- Lapurditik: 1.

SEKTOREKA

- Nekazaritzako elikagaiak: 7
- Beira: 1
- Zura: 6
- Larrua: 6
- Ehungintza: 7
- Arte: 1
- Zeramika: 6
- Bestelakoa: 2
- Euskal kirola: 1
- Kosmetika: 4
- Bitxigintza eta forja: 10
- Imitaziozko bitxigintza: 1
- Papera eta kartoia: 1
- Lore lehorrak: 1

ETENGABEKO ERAKUSTALDIAK

- Juan Unzueta eta Jose Ramon Salmanton saskigileen lanak.

ORDUA

- 11:00etatik 14:30era.
- 16:30etik 21:00etara.
- Domekan, 11:00-14:30 / 16:30-20:00ak arte



durango irratia

Larrasoloeta Kalea 5 • DURANGO
Tel.: 94 621 55 99

www.durango-udala.net/durangoirratia
durangoirratia@durango-udala.net

107,8
Frekuentzia

Durango irratia
Gertukoena

Azoka egunetan,
Durango irratian, bertsolaritza,
musika eta herriko sortzaileak



Durango Irratia
https://www.facebook.com/durangoirratia



@Durango_Irratia



>EUSKAL DENDA A. Maldonado
Ilusioz eta gogoz dago Bernat Vidal Arbasoko lehendakaria 22. Euskal Denda hastear dela. Artisauen azokak toki bat egin du Durangoko Azokaren alboan, eta dagokion toki horri eusteko, beharreen jarraitzeko asmoa agertu du.

Zein neurritan da garrantzitsua Euskal Denda bertako artisautzarentzat?

Durangoko Azoka bezala, Euskal Denda ere oso garrantzitsua da sektorearentzat. Euskal Herriko enpresa askok etorri gura duten azoka da hau. Honen bidez, sektoreari ahalik eta ekarpen handiena egiten saiatzen gara gure aldetik. Aurten, postuen %37 berriak dira, lehenbizikoz egongo dira Euskal Dendan, eta horrek esan gura du beste hainbat kanpoan geratu behar izan direla. Guk beste azoka batzuk ere antolatzen ditugu, Euskal Dendak baino eragin handiagoa dutenak publikoarengan; adibidez, Bilboko Gabonetako azoka, [80.000 bisitari izaten dira bertan]. Baina artisautzentzat, erreferentziazkoa da Durangoko Euskal Denda.

Zein irizpideri jarraitzen diozue ekoizleak aukeratzera-koan?

Arautegiaren arabera, Euskal Dendan parte hartzen duten ekoizleek profesionalak izan behar dute. Artisauak herrialdeko erregistroan izena emanda egon behar dute, besteak beste. Artisautza herrialdeetako Batzar Nagusien menpe dago, eta bertako departamentu bakoitzak ezarritako irizpideak bete behar ditu lehenik eta behin. Lehentasunezkoak dira, baita ere, autonomoetan alda hartuta egotea edo zergen ordainketa egunean eramatea. Agindu horiez gainera, guk gure irizpide propioak ditugu, azoka erakargarria izateko eta bisitariak nobedadeak aurkitzeko. Adibidez, sektoreka errepikapenik egon ez dadin, aukeraketa bat egiten saiatzen gara. Azokakoa ez da harreman komertzial bat bakarrik: ondo dago ekoizleak saltzera etortzea, baina azo-

“Gure iraganeko elementu askori bigarren bizitza bat eman diezaiekegu”

Vidalen ustetan, garai berrietara egokitzen asmatu behar du artisautzak, bizirik iraun behar badu



Bernat Vidal
Cañizo (Gaztela eta Leon, Espainia), 1959
Arbasoko lehendakaria

ka erakargarri bat antolatzea da gure lehentasuna. Horretarako, txandakatu egiten ditugu postuak baita ere.

Ofizio tradizionalak hiltzen ari dira?

Bizitza honetan beste gauza askoz gertatzen den bezala, atzean geratzen diren gauzak galdu egiten dira. Ofizioen kasuan esan daiteke zaharkituta gelditzen ari direla: orain ez dute betetzen lehen zuten funtzioa. Horregatik da interesgarria ikustea egungo beharrietara nola moldatu daitezkeen. Bea Unzueta kasua ikusi daiteke hor [aurkezpen prentsaurrekoan parte hartu zuen]. Bere garaian erosketak egiteko joateko erabiltzen ziren otzarak, eta gaur egun perretxikotatik joateko erabiltzen dira. So-

“Bizirik irautea da, aurrera begira, artisautzaren erronka nagusia”

“Lehen, gauzak luze irauteko egiten ziren, eta orain, alderantziz”

zialki aldatu egin dira planteamenduak, eta horietara egokitu behar du artisautzak. Beak etorkizun-sena garatu du, adibidez, Basque Craft jardunaldietan parte hartuz eta diseinatzaileekin iritziak trukaturik. Horrela, arraroa dirudien arren, gailu elektronikoentzako zorroak egiten hasi da, adibidez. Baserri-

ko otzarak gogora ekartzen dituzten produktuak dira, baina horiek izan gabe. Esentzia gordetzen dute, beste produktu bat izan arren. Hori garrantzitsua da ofizioa bizirik mantentzeko. Juanito Unzueta-arentzat [Bearen aita zen] ezinezkoa izango zen hau, nahiz eta hau ere begitazio handikoa izan. Gure iraganeko elementu askori bigarren bizitza bat eman diezaiekegu. Horretarako, artisautza tradizionala ulertzen eta maitatzen duen jendea behar da. Durangaldean, adibidez, azken xistera egilea eduki dugu, Miguel Angel Arriaga berriztarra, eta hori galtzeak pena handia ematen du. Zerbaitek bere erabilera galtzea pena bat da. Erakundeen aldetik egunerokoa lantzen da, eta horrelako kontuek ihes egiten diete. Iaz Washingtoneko Smith-

sonian jaialdian egon ginen, eta gure kulturaren adierazle diren elementu batzuk eskatu zizkiguten bertan erakusteko. Esan behar izan genuen, jada ez dela geratzen hori arrazoizko moduan egiten duenik. Kaikuak, adibidez, sinbolikoki erakusten dira, gaur egun balio funtzionalik ez dutelako ia. Azken finean, ez da zerbait *kitscha* egitea, baizik eta gai izatea ofizioa eta artisautza ulertzeko, eta produktu duinak sortzeko. Eta nazioartean garrantzia ematen zaio horri. Pentsa, Durangoko artisau baten produktuak Japonian saltzen ari dira!

Zein da artisautzaren erronka nagusia?

Bizirik irautea, batez ere. Eta baita jendearen bizitzari zentzua ematea ere. Paradojikoki, bi paradigma ematen ari dira gaur egun. Alde batetik, eguneroko zurrumbiltoa, erosketak internetetik egiteko joera, bizitza bizimodua. Bestetik, ‘lasai’ dioen mugimendu bat, gauzak baloratzen dituenak.

Kontuan eduki behar da gauzak irauteko egiten zirela lehen, eta gaur egun alderantzizkoa gertatzen ari da. Diseinatzerakoan, beti hartu izan da kontuan funtzio orokorra; diseinua eta artisautza jorratzen dituztenek, oster, irautean duten eta kalitatezkoak diren produktuak egiten jarraituko dute. Artisauak beti lehenetsi du kalitatea, bere lana horretarako egiten du. Kontzeptu batzuetara itzultzen ari da jendarteak, eta artisautzak bere lekua egin dezake testuinguru horretan. Teknologia pisu handia du egungo jendarteak, eta hori ezin du baztertu artisautzak. Kontrakoa baizik. Horri egokitu egin behar zaio, batez ere herriaren tradizioa eta kultura bizirik mantentzen laguntzen badu.

Euskal Herriko Artisautzaren Azoka
Feria du Secteur Artisanal Basque
Feria del Sector Artesanal Vasco

Bizitza Ehunduz

GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITA!

- Erakustaldiak. Umeentzako tailerrak
- Erosketa-baleak zozketatuko ditugu, 2.000 euro guztira.
- Sorpresa asko izan ditzakezu.

Abenduak
2017 / 12 / 6 - 10
Durangoko Azoka Plazan

Ordutegia: 11:00 - 14:30 / 16:30 - 21:00

www.euskaldenda.info

AHOTSENEA SORTZAILEEN PLAZA DA!

ABENDUAK 6, eguztena
AHOTSENEA ZUZENEKOAK
11:00 La banda del abuelo. ‘Rockanrola mailu bat da’ diskoa aurkezten
11:40 Akabu. ‘Akabu’ diskoa aurkezten.
12:20 Nebrashka. ‘Bizimina’ diskoa aurkezten.
13:00 Rafa Rueda. ‘Hiri kristalezkoa’ diskoa aurkezten.
13:40 Beira. ‘Beira braillean’ diskoa aurkezten.
14:20 ZaKill. ‘Kill or die’ diskoa aurkezten.
15:00 Perlata. ‘Nondik hasi’ diskoa aurkezten.
15:40 Pelax eta Telmo Trenor. ‘Pelax eta Telmo Trenor diskoa’ aurkezten.
16:20 Nomadak. ‘Nomadak’ diskoa aurkezten
17:00 Beñat Igerabide. ‘Geldialdi bakoitzean’ diskoa aurkezten.
17:40 Maider Zabalegi. ‘Zuei’ diskoa aurkezten.
18:20 Folketan. ‘Hamaika entzuteko!’ diskoa aurkezten.
19:00 Sofa. ‘Ii’ diskoa aurkezten.
19:40 SinMas. ‘Desesperación’ diskoa aurkezten.
AHOTSENEA SOLASALDIAK
11:00 Silvia Federici. ‘Caliban eta sorgina’ saiakeraren aurkezpena.
11:30 Jule Goikoetxea. ‘Demokraziaren pribatizazioa’ saiakeraren aurkezpena
12:00 Fito Rodriguez. ‘Egunero egun ero’ liburuaren aurkezpena.
12:30 Demode Quartet. ‘Musikal guztiak ia ia’ diskoaren aurkezpena.
13:00 Maddi Zubeldia. ‘Deserria haurtzaro’. Aurkezpena.
13:30 Robert Menasse. ‘Europar mezularia’ saiakeraren aurkezpena.
16:30 Maiatz aldizkaria. Aurkezpena
17:00 Miren Gaztañaga + EHAZE. Stereo + Euskal antzerkigintza: 2017ko txostena. Aurkezpena
18:00 Yogurinha Borova. ‘Amari’ diskoaren aurkezpena.
18:30 Luis Garde. ‘Barbaroak baratzean’ poesia liburuaren aurkezpena.
19:00 Alboka folk taldea. ‘Lurra, ur, haize’ diskoaren aurkezpena.

ABENDUAK 7, eguna
AHOTSENEA ZUZENEKOAK
11:00 Katez. ‘Zein’ diskoa aurkezten.
11:40 Deus ez. ‘Deus ez ‘ diskoa aurkezten.
12:20 Tenpora. ‘Itzulika’ diskoa aurkezten.
13:00 Paddy Rekalde eta Itsua. Paddy Rekalde eta Itsua diskoa aurkezten.
13:40 Kalera. ‘Itzalak’ diskoa aurkezten.
14:20 Aneguria. ‘Horchata de chufa diskoa’ aurkezten
15:00 Birkit. ‘Emen’ diskoa aurkezten.
15:40 Gatom. ‘Kostako vibes’ diskoa aurkezten.
16:20 Erokomeri. ‘Izan’ diskoa aurkezten.
17:00 Mocker’s. ‘Beats of Freedom’ diskoa aurkezten.
17:40 Euskatalites. ‘Euskatalites’ diskoa aurkezten.
18:20 Koiu. ‘Infernuko atian gaude’ diskoa aurkezten.
19:00 ETS. ‘Ametsetan’ diskoa aurkezten.
19:40 Liot. ‘Haizeak eraman gaitzala’ diskoa aurkezten.
AHOTSENEA SOLASALDIAK
11:00 IKASLE EGUNA. Musika hiri-kulturak: Rap tailerra.
11:30 Anjel Lertxundi. ‘Horma’ nobelaren aurkezpena.
12:00 Lola Sarratea. ‘Lolita’ ipuin-liburuaren aurkezpena.
12:30 Igela argitaletxea. Hodien metafisika (Amélie Nothomb) eta Kale Estua (Josep Pla).
13:00 Jon Maia. ‘Berriak jaio ginen’. Liburu aurkezpena.
13:30 Beñat Axiari, Joseba Irazoki eta Julen Axiari. ‘Bas(h)oan’ diskoaren aurkezpena.
16:30 Eskina Femenina. Autoekoizpena Euskal Rap-ean solasaldia.
17:00 Iñigo Urdinaga. ‘Surflaria eta paradisia’ liburuaren aurkezpena.
17:30 Yoseba Peña Landaburu. ‘Ixo (1987)’ liburuaren aurkezpena.
18:00 Silvia Federici. ‘Soldataren patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak’ saiakeraren aurkezpena.
18:30 Trizak. Jon Piris, Julen Izarra, Hasier Oleaga. ‘Trizak’ diskoaren aurkezpena.
19:00 Julen Garate Azpitarte. ‘Argi estalia’ nobelaren aurkezpena.

ABENDUAK 8, barikua
AHOTSENEA ZUZENEKOAK
11:00 Hara!. ‘Adikzioak, desirak eta minak’ diskoa aurkezten.
11:40 Ze Esatek!. ‘Ibilita ikasten da erortzen’ diskoa aurkezten.
12:20 Igor Arzuaga. ‘Nire Begiak diskoa’ aurkezten.
13:00 Bultz. ‘Erraiak’ diskoa aurkezten.
13:40 Itziarren Semeak. ‘EH Republik’ diskoa aurkezten.
14:20 Askoren artean. ‘20 urtez Euskal Taupada’ diskoa aurkezten.
15:00 Mugaldekoak. ‘Galdemoduen trilogia’ diskoa aurkezten.
15:40 Nøgen. ‘LYS’ diskoa aurkezten.
16:20 Maria Rivero & Tribu banda. ‘Kintsukoroi’ diskoa aurkezten.
17:00 The Fridays’s Crew. ‘Harresien gainetik’ diskoa aurkezten.
17:40 Iker Lauroba. ‘Nire gordelekutik’ diskoa aurkezten.
18:20 Libe. ‘Ilargia erori da’ diskoa aurkezten.
19:00 Rodeo. ‘Rodeo’ diskoa aurkezten.
19:40 Haustura. ‘Haustura’ diskoa aurkezten.
AHOTSENEA SOLASALDIAK
11:00 Askoren artean. 39 idazle nafar. Aurkezpena.
11:30 Joseba Tapia. ‘Besamotzak’. Solasaldia.
12:00 Erroa argitaletxearen liburuak. Aurkezpena.
12:30 Eider Rodriguez. ‘Bihotz handiegia’ ipuin-liburuaren aurkezpena.
13:00 Hegats aldizkaria. 55. alea. Aurkezpena.
13:30 Juankar L. Mugartza. ‘Arima animalia’ poesia liburuaren aurkezpena.
16:30 Jon Iñaki Lasa. ‘Bidaia’ poesia-liburuaren aurkezpena.
17:00 Jon Arretxe. ‘Arrutiren banda’ nobelaren aurkezpena.
17:30 Iñaki Perurena. ‘Harria maitasun istorioa’. Bakarriketa.
18:00 Mariñe Arbeo, Malen Amenabar, Nerea Ibarzabal, Ane Labaka. ‘Xixili’ ikuskizuna.
18:30 Tere Irastortza. ‘Txoriak dira bederatzi’ liburuaren aurkezpena.

19:00 Juan Mari Beltran. ‘Soinu-tresnak Euskal Herriko musikan (1985-2010)’. Disko aurkezpena.
ABENDUAK 9, zapatua
AHOTSENEA ZUZENEKOAK
11:00 Berri Txarrak. ‘Infrasoinuak’ diskoa aurkezten.
11:40 FaltA. ‘FaltA’ diskoa aurkezten.
12:20 Bi bala. ‘Arazo modernoak’ diskoa aurkezten.
13:00 Trini Fox. ‘Letaginak’ diskoa aurkezten.
13:40 Anita Parker. ‘Anita Parker’ diskoa aurkezten.
14:20 Deiedra. ‘Ortziren mailukada’ diskoa aurkezten.
15:00 Sardeska. ‘R-Evolution’ diskoa aurkezten
15:40 Hibai. ‘TripTics I-II’ diskoa aurkezten.
16:20 Patxuko Nice. ‘Hego haizea, ego querido’ diskoa aurkezten.
17:00 Zazkel. ‘Ez entzun’ diskoa aurkezten.
17:40 Euskal Herriko Trikitixa Elkarte. ‘Haziak’ diskoa aurkezten.
18:20 Balerdi Balerdi. ‘Galtzen ikasteko metodoa’ diskoa aurkezten.
19:00 MG Banda. ‘Hamelin’ diskoa aurkezten.
19:40 Mr Pongo Band. ‘Mr Pongo Band’ diskoa aurkezten.
AHOTSENEA SOLASALDIAK
11:00 Juan Kruz Igerabide. ‘Labur txintan’ liburuaren aurkezpena.
11:30 Jasone Osoro. ‘Kastinga’ nobelaren aurkezpena.
12:00 Kepa Altonaga. ‘Patagoniara Hazparnen barrena’ liburuaren aurkezpena.
12:30 Ane Labaka eta Beatriz Egizabal. ‘Erradikalak gara’. Performancea.
13:00 Uxue Alberdi. ‘Jenisjoplin’ nobelaren aurkezpena.
13:30 Keu Agirretxea. ‘Inprophono’ diskoaren aurkezpena.
16:30 Judit Ruiz de Munain, Patxi Zubizarreta, Jokin Mitxelena. ‘Zukafukamusuka’ liburuaren aurkezpena.
17:00 Martin Bidaur. ‘Itzulera’ poesia-liburuaren aurkezpena.
17:30 Julen Ribas eta Eider Rodriguez. ‘Santa familia’ komikiaren aurkezpena eta marrazkiak zuzenean.

18:00 Jakoba Errekondo & Antton Olariaga. ‘Landareak lantzen’ komikiaren aurkezpena.
18:30 Garazi Arrula Ruiz. ‘Gu orduko haiek’ ipuin-liburuaren aurkezpena.
19:00 J.M Bedaxagar, Mixel Etxekopar, J.M. Beltran. ‘Zuhainpeko soinuak’ diskoaren aurkezpena.
ABENDUAK 10, domeka
AHOTSENEA ZUZENEKOAK
11:00 Nonguayaz. ‘Nonguayaz’ diskoa aurkezten.
11:40 Atzekabe. ‘Gure bidea’ diskoa aurkezten.
12:20 Huts. ‘Mamuak’ diskoa aurkezten.
13:00 The Icer Company. ‘Belurbe’ diskoa aurkezten.
13:40 Xabi San Sebastian. ‘Zuhaitzak ez du beldurrik’ diskoa aurkezten.
14:20 Didar. ‘Didar’ diskoa aurkezten.
15:00 Mushkum. ‘Denbora’ diskoa aurkezten.
15:40 Baneki. ‘Sentizazu’ diskoa aurkezten.
16:20 Enekora. ‘Maitatzea nahiago’ diskoa aurkezten
17:00 Pauline & Juliette. ‘Hegaldaka’ diskoa aurkezten.
17:40 Kaskezur. ‘Azpisugeak’ diskoa aurkezten.
18:20 La Basu. ‘Ni naiz izotz erregina’ diskoa aurkezten.
19:00 Hiri Galduek. ‘Paititi’ diskoa aurkezten.
19:40 Odolaren mintzo. ‘Etsipenaren aurka’ diskoa aurkezten.
AHOTSENEA SOLASALDIAK
11:00 Mikel Urdangarin. ‘Margolaria’ diskoaren aurkezpena.
11:30 Asier Serrano. ‘Denen mina da nirea’ poesia liburuaren aurkezpena.
12:00 Pierre Mestrot. ‘Bihotz ebatsiak’ nobelaren aurkezpena
12:30 Aingeru Epaltza. ‘Mendi-joak’ narrazio-liburuaren aurkezpena.
13:00 Sergei Dovlatov. ‘Filiala’ nobelaren aurkezpena.
13:30 Ander Garcia. ‘Hiru’ liburua aurkezten.
16:30 Munduko Poesia Kaierak.
17:00 Jokin Lasa & Miquel Saumell. ‘Hatseginez’ diskoaren aurkezpena.

70 musikarik zuzeneko bidez aurkeztuko dituzte euren lanak hamarkada bete duen Ahotsenean

Aurten 125 sormen lan berri aurkeztuko dituzte Ahotsenean; zuzenekoek gainera, idazleen zein musikarien 55 aurkezpen solasaldi hartuko ditu

> AHOTSENEA Joseba Derteano 2008an Ahotseneak plazaratutako eta Aiora Renteria musikariak irakurritako manifestuko zati batek honela dio: “Euskal liburu eta diskoen azokan, euskal literaturaz eta euskal musikaz berba egin gura dugu. Gutxienez, liburuek eta diskoek duten presentzia bera izan gura dugu”. Sortzaileen plaza izateko helburuz jaio zen, beraz, Ahotsenea, eta aurten hamarkada bat egingo du zeregin horretan. Gune horrek hartu duen garrantziaren adibide da, esaterako, musika sortzaileen partetik Ahotseneako eszenatokia baliatzeko jaso duten eskari kopurua: 88 guztira. Ez dago tokirik denentzat, eta 70 musikariren edo musika talderen lanak jasoko ditu kontzertu formatuan.

Lehenengo urtean zuzeneko gutxi batzuk eta akustikoan eman ziren. Gaur egun, baliabide tekniko handiagoak dituzte eta ez dago mugarik: musika taldeek akustikoan zein elektrikoan jardun dezakete. Izen batzuk aipatzen hasita, Ahotseneako eszenatokitik Rafa Rueda, Berri Txarrak, Paddy Rekalde eta Itsua, eta Ze Esatek! igaroko dira, besteak beste.

Aurten, guztira, 125 sormen lan berri aurkeztuko dituzte. Aipatutako 70 zuzenekoek gainera, 55 aurkezpen-solasaldi hartuko ditu, idazleenak gehienbat, baina baita musikarienak ere. “Izugarri hasi” den gunea dela nabarmendu zuen Lutxo Egia Ahotseneako koordinatzaileak Azokaren aurkezpen egunean. “Azoka euskal kulturaren ardaz den heinean garrantzitsua da sortzaileak bertan izatea eta euren lana erakutsi ahal izatea”, azaldu zuen. Hainbat idaz-

Aurkezpenetan liburuaren pasarteak irakurriko dituzte, musikaz lagunduta

Berri Txarrak, Paddy Rekalde eta Itsua... igaroko dira eszenatokitik

le igaroko dira solasguneetik: Andu Lertxundi, Garazi Arrula, Jon Arretxe, Jule Goikoe-txea, Paddy Rekalde, eta zenbait musikari ere bai: Keu, Joseba Tapia, Mikel Urdangarin...

Aurten ere, narratiba eta poesia liburuen aurkezpenen hasieran eta bukaeran obra horien pasarteak irakurriko dituzte, musikaz lagunduta. Ane Artetxe, Amaia Ruiz eta Amaia Irabazal arituko dira zeregin horretan.


Urteurreneko erakusketa

Hamargarren urteurrena ospatzeko, argazki erakusketa bat antolatu dute. Euskal Herriko hainbat herritan izan da ikusgai eta Azokan ere egongo da. Txelu Angoitia, Saioa Cabañas eta Joseba Barrenetxea argazkilarien 25 irudik osatzen dute erakusketa. Argazkiekin batera, hainbat musikari, idazle, editore eta kazetarik gogoeta egingo dute.

Bestalde, urteurrena ospatzeko, argazki erakusketagaz batera hainbat emanaldi ere egin dituzte Bilbon, Tafallan eta Gasteizen. Plaza nagusiak, Durangok, abenduaren 6an irekiko ditu ateak.



Ze Esatek! taldeak zuzenekoagaz aurkeztuko du disko berria.



Rafa RuedaK 'Hiri Kristalezkoa' lana eskainiko du Azokan.



Paddy Rekaldek eta 'Itsua'-k elkarlanean egindako lana aurkeztuko dute.

ZIENTZIA
urteko
NOBEDADEAK

ELHUYAR aldizkari berria **HAURRENTZAT** 4-8 urte
elhuyar.eus/denda

HIZTEGIAK
GUZTIENTZAT

ELHUYAR aldizkari berria
aldizkaria.elhuyar.eus

elhuyar
GOINKALE 92

ELHUYAR aldizkari berria
aldizkaria.elhuyar.eus

GOZATU!

ELHUYAR aldizkari berria
aldizkaria.elhuyar.eus

COLLINS-ELHUYAR
ingelese-euskara
collins.elhuyar.eus

ELHUYAR
ikaslearen hiztegia
ikaslearenhiztegiaelhuyar.eus

ELHUYAR HIZTEGIAK
euskara-gaztelania
hiztegiak.elhuyar.eus

zatoz gu
ezagutzeroa

94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org
www.informazaitetz.eus



Itsaso Gangoitia Saguganbarako arduraduna.



Euskal Herri osoko umeek bisitatuko dute Saguganbara Azokako egunetan.

“Saguganbararen helburua irakurzaletasunaren ikuspuntutik transmisioan eragitea da”

Ipuin kontaketak, dantza saioak, aurkezpenak eta tailerrak egingo dituzte umeentzako literatur gunean

> SAGUGANBARA J. Guenetxea Irakurle hasiberriek eta gaztetxoek beraien txokoa izango dute Saguganbaran. Berbaro elkarteak antolatzen duen gunearen helburua gaztetxoei euskal literaturaz eta kulturaz gozatzeko espazioa eskaintzea da. Horretarako, ipuin kontaketak, dantza saioak, aurkezpenak eta tailerrak egingo dituzte. “Gure helburua irakurzaletasunaren

ikuspuntutik transmisioan eragitea da”, azaldu du Itsaso Gangoitia Saguganbarako arduradunak. Izan ere, lehen urteetan literaturara gerturatzen diren umei irakurzaletasuna piztea errazagoa da. “Askotan etorkizuneko irakurleak direla esaten da. Guk azpimarratu gura dugu umeak dagoeneko irakurle direla eta beraiei bideratutako sorkuntza handia dagoela”.

Leire Bilbao eta Arrate Egaña beraien liburuak aurkeztuko dituzte

Haurrentzako kalitatezko literatura sorkuntza horren erakusle izan gura dute. Horretarako, haurrak eta beraientzako sorkuntza erdigunean jartzen dituzte. “Bide horretan euskal sortzaileek egiten duten ahalegina eskertu gura dugu”, dio Gangoitiak. Bestalde, literaturaz gain, arlo anitzetako sortzaileak bilduko dira: ilustratzaileak, dantzariak, abeslariak...

Saguganbaran klasiko bat izaten den Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldirik ez da izango aurten. 30. urteurrena dela-eta, Joxe Marik, Aiorak eta Mertxek areto nagusian aurkezpena egitea erabaki dute aurten. Hala ere, egitaraua ekitaldiz gainezka dator ume zein gazteen gozamenerako.

Leire Bilbao, Amaia Hennebutte, Arrate Egaña eta Antton Kazabon, esate baterako, beraien liburuak aurkeztera joango dira literaturara zuzendutako gunera. Era berean, Eider Eibar ilustratzailea izaten da gunea atontzen duena, eta zornotzarrak ere emanaldia eskainiko du.

SAGUGANBARA TXIKI ETA HANDIEN PLAZA DA!

ABENDUAK 6, eguaztena
ARETO NAGUSIA
11:30 ‘Klarisa. Ume desagertuaren kasua’. Aurkezpena. Arrate Egaña idazlea eta Marimar Agirre marrazkilaria. Familia osoarentzat.
12:30 Ume jakinguratsuen esperimentu-liburua. Aurkezpen tailerra. Ana Galarraga Aiestaran (Elhuyar). 4-8 urte bitarteko umeentzat.
ARETO TXIKIA
18:00 ‘Mokotxiki’. Aurkezpena. Leire Bilbao eta Maite Mutuberria. 6 urtetik aurrera.
10:30 Kantu jolas tailerra. Berbaro Elkarte. Familia osoarentzat.
16:00 Liburu baby kluba. Ipuin kontaketa (Mestiza Elkarte). 0-3 urte.
17:00 Liburu bat mundu bat. Ipuin kontaketa (Mestiza Elkarte). 4-6 urte.
ABENDUAK 7, eguena
ARETO NAGUSIA

12:30 IKASLE EGUNA. Zirku literarioa. Tailerra.
16:00 ‘Plaza irrintzika’. Ikuskizuna. Eneko Arrate Sololuze. Familia osoarentzat.
ARETO TXIKIA
15:00 ‘Erne eta bare’. Tailerra (Berbaro Elkarte). 3 urtetik aurrera.
17:00 ‘Kako-makotan’. Tailerra (Berbaro Elkarte). Familia osoarentzat.
ABENDUAK 8, barikua
ARETO NAGUSIA
10:30 ‘Ni neu galtzeta’. Ipuin kontaketa. Iker Uribe eta Joana Ziganda. Familia osoarentzat
11:30 ‘Arraroa’. Aurkezpena. Ainara Azpiazu eta Paula Estevez. Familia osoarentzat.
12:30 ‘Banilo!’. Aurkezpena. Eider Eibar. Familia osoarentzat.
16:30 ‘Lili’. Ipuin kontaketa. Amaia Hennebutte. Familia osoarentzat.

17:30 J’ira bueltan. Betiko 50 kanta eta jolas’. Aurkezpena. Idolia Etxeberria eta Eider Eibar marrazkilaria. Familia osoarentzat.
18:30 ‘Sorgina txirulina: ipuinak eta musika’. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat.
ARETO TXIKIA
13:00 Olgeta tailerra. Tailerra (Olgeta). 2-5 urte
ABENDUAK 9, zapatua
ARETO NAGUSIA
11:00 ‘Errekak oiloari’. Aurkezpena. Antton Kazabon eta Enrique Morente. Familia osoarentzat.
12:00 ‘Haizeak hitz, hitzak haize’. Aurkezpena. Antton Kazabon liburuaren egilea eta Jokin Mitxelena ilustratzailea. 8 urtetik aurrera.
13:00 ‘Astonauta Tronpeta Flauta Dantzan. Ikuskizuna’ (Ene Kantak). Familia osoarentzat.
15:30 ‘Udazkeneko jolasak’. Ipuin kontaketa. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena . Familia osoarentzat.

18:00 ‘Oilar txikia’. Ipuin kontaketa. Jexux Eizagirre. Familia osoarentzat.
19:00 ‘1,2,3... hemen da Miru!’ Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat.
ARETO TXIKIA
17:00 Elkar jolasak. Tailerra (Elkar). Familia osoarentzat.
ABENDUAK 10, domeka
ARETO NAGUSIA
11:00 Kontukontari 2, Mendiari Ibiltari. Antzerkia. La Enana Naranja txotxongilo taldea. Familia osoarentzat
12:00 Irudipuinak. Ipuin kontaketa. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria eta Mattin ilustratzailea. Familia osoarentzat
13:00 ‘Pio martzianoa’. Aurkezpena. Pello Añorga. Familia osoarentzat
13:30 ‘Tontolapiko’. Ipuin kontaketa. Pello Añorga eta Jokin Mitxelena Familia osoarentzat

52. DURANGOKO AZOKA

2017ko abenduaren 6tik 10era

52. Durango

Lauaxeta eta Lorca berbagai dituen antzezlanagaz abiatuko dute Szenatokia

Josu Kamara du zuzendari eta Jon Maia gidoilari abenduaren 6an ikusgai egongo den obrak



Abenduaren 6an 'Ele! Lauaxeta-Lorca' antzezlanak ikusi ahaliko da San Agustin Kultur Gunean.

> ANTZERKIA Joseba Derteano Szenatokiak abenduaren 6an irekiko ditu ateak Lauaxeta eta Lorcaren gaineko *Ele!* antzezla-

nagaz. Josu Kamara zuzendari eta Jon Maia gidoilari dituen lan honek idazle bi horien gainean dihardu. Biak izan ziren idazle

eta poeta ikoniko, bakoitza bere herrian, bakoitza bere kulturaren. Eta biak gazterik hil ziren, frankisten esku. Beraz, beren

Lauaxeta eta Lorca idazle ikonikoak izan ziren, nor bere herrian

Holoque-ren lanak itzalen bidez erakusten ditu txotxongiloak

bizitzan hainbat antzekotasun aurkitu daitezke, bata Euskal Herrian eta bestea Andaluzian jaio ziren arren. Sortzaile bi horien gaineko ikuspegia emanda, identitate desberdinen arteko elkarbizitzaren inguruko hausnarketa sustatzea izan dute helburu.

10 euro balio du antzezlanak ikusi ahal izateko sarrerak, eta

txartelak San Agustin Kultur Gunean eskuratu daitezke.

Txotxongiloen itzalak Gaztetxoei begirako eskaintza Holoque konpainiaren *Mundu Onirikoa* ikuskizunak osatuko du. Gela txiki batean, asko jota, 16 laguntzako tokia izaten du emanaldi bakoitzeko. Guztira, sei emanaldi egingo dituzte. Horregatik, bakoitzean ikus-entzule gutxi sartzen direnez, abenduaren 7ko goizean zehar San Agustin Kultur Guneetik igaro eta txanda hartzeko gomendatu dute antolatzaileek.

Mundu Onirikoa txotxongiloen ikuskizuna da, baina modu berezian erakusten dituzte: itzalen edo hologramen bidez. "Interesgarria da ikusleentzat, baina baita sortzaileentzat ere, teknika desberdin bat erabiltzen dutelako. Horregatik ekarri dugu", azaldu du San Agustin Kultur Guneako kudeatzaile Arantza Arrazolak.

Holoque konpainia katalana da eta kide euskaldun bat dute. Lotura horregatik eta proposamen interesgarria delako gonbidatu dituzte euren lana Szenatokian aurkeztera.

SZENATOKIA ARTE ESZENIKOEN PLAZA DA!

ABENDUAK 6,
eguztena

18:00
Ele! Karabansarai produkzioak.
Sarrera: 10 €

ABENDUAK 7,
eguna

11:00 Holoque, Mundu onirikoa.
16 minutuko zazpi saio, ordu erdiro hasita, 13:30ak arte. Ologramarekin sortutako txotxongiloen ikuskizuna, Diego Caicedok zuzenduta.

ABENDUAK 8,
barikua

20:00 'Omentzetik ereitera' ekitaldia.
Gonbidapena beharrezkoa da ekitaldira joateko.

ABENDUAK 9,
zapata

MIKROANTZERKI MARATOIA.
Ordu laurdeneko antzezlan zatiak

11:00 ZUBI deialdia.
2017ko irabazlearen aurkezpena.

12:00 'Ganba alaia'.
Olatz Beobide eta Isidoro Fernandez.

12:30 'Minus ikuttua'.
Telmo Irureta.

13:00 'Sarean kateatuak'.
Nomofobikak.

13:30 'Takoidun zapata gorriak'.
Pizifaktoriaren eskutik.

18:30 'Takoidun zapata gorriak'.
Pizifaktoriaren eskutik.

19:00 'Ganba alaia'.
Olatz Beobide eta Isidoro Fernandez.

19:30 'Minus ikuttua'.
Telmo Irureta.

20:00 'Sarean kateatuak'.
Nomofobikak.



MAÑARIKO UDALA

946 818 998
www.manaria.org

Antzerki laburren loraldiari tokia egingo dio aurten Szenatokiak

Ordu erdiko antzezlanen fenomeno jasoko du urtero antolatzen duten antzerki maratoiak

> SZENATOKIA Joseba Derteano Szenatokia arte eszenikoen eta euren sortzaileen plaza bihurtuko da, beste behin, San Agustín Kultur Gunean. Aurten nobedade batez dator. Orain arte, egun oso bat gordetzen zuten antzezlanen 'trailer'-ak erakusteko, maratoi eredu. Obra osoen laginak ziren, eta amu moduan balio zuten. Aurten, ordea, kirurgiarik jasan bako obra laburrekin egingo dute maratokia: mikroantzezlanak dira. Kontatu beharrekoa 20-25 minutuan kontatzen dute, eta "azken bosturtekoan asko hazi den formatua da", San Agus-

Arantza Arrazola:
"Azken bost urteetan asko hazi den formatua da"

Antzezlanen artean solasaldiak antolatuko dituzte sortzaileekin

tin Kultur Guneako kudeatzaile Arantza Arrazolaren esanetan.

Planteamendua, korapiloa eta amaiera: sormen lan baten ohiko osagai guztiak ditu, baina denbora laburragoan kontzentratuta. Iraupenaz gainera, beste ezaugarri batzuk ere baditu: jaialdi berean hainbat lan batzeko aukera, areto txikietan aktoreen eta ikus-entzuleen arteko gertutasuna... Durangaldeari ez zaio arrotza formatu hori: Elorrioko Musikaire jaialdiak ordu laurduneko dantza erakustaldien jardunaldia antolatu du aurten, eta Durangoko San Agustinek ere jardunaldi bat

eskaini dio fenomeno honi Azokaren aurretik.

Lau antzezlan

Bataren bertuteak eta bestearen gabeziak aztertuta, abenduaren 9a antzerki laburrari eskaintzea erabaki dute. Lau obra izango dira ikusgai: *Minus Ukitua*, *Sarean Kateatuak*, *Ganba Alaia* eta *Takoidun Zapata Gorriak*. Goizean eta arratsaldean, emanaldi bi izango dira.

Minus Ukitua-n Telmo Irueta zumaiarrek umorezko monologo batez helduko dio bere gaixotasunari: garun-paralisi batek gorpil-aulkira iltzatu zuen umetan. Pertsona ekintzailea da Irueta, hesiak eraistera ohituta dago, eta konplexurik barik eta umorez hitz egiten du bere mugei buruz. *Sarean Kateatuak* lanean sare sozialen inguruan dihardute Nomofobikak konpainiako Belen Cruzek, Amaia Lizarralde eta Olatz Beobidek. Beobide izango du protagonista *Ganba Alaia* lanak ere, Isidoro Fernandezegaz batera. Gosari normala zirudiena egoera kafiak bihurtuko da. Azkenik, Piszifaktoria laborategia urrian Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian estreinatutako *Takoidun Zapata Gorriak* lanagaz etorriko da. Tragedia ukituko proposamenak detektibe bat, dantzari bat eta pianista bat portuko taberna ilun batean batuko ditu, nor bere beldurrei buruz berba egiten.

Szenatokia ikus-entzuleak aktoreengana hurreratzan di-tuen gunea ere bada. Horretan saiatzen dira. Ildo horretatik, antzezlan bat amaitu eta bestea hasi aurretik, aktoreekin solasaldiak antolatuko dituzte urtero moduan.



Nomofobikak sortutako 'Sarean Kateatuak' antzerki laburra sare sozialen inguruan dihardu.

HEZI, HAZI, HESIAK GAINDITUZ 5 HIZKUNTZATAN

Learning through new technologies developing all the skills!
Ikasten kooperatu eta kooperatzen ikasi



Alemana

—
Gure ikasleen %92k
Langenhageneko elkartrukean
parte hartu dute.



Frantsesa

—
Aste Santuan, ikasleek Parisen
aste beteko egonaldiaz
gozatuko dute.



Ingelesa

—
DBH 4.mailako ikasleen %100ek
Irlandara joan eta **bertako ikastetxe batean ingelesa** ikasteko aukera izango dute.

Genieße es draußen in der Natur!
Bon voyage!



SAN ANTONIO
IKASTETXEA
Irakasleko Kooperatiba

IZEN-EMATEA ZABALIK!
2015, 2016 eta 2017 urteetan
jalotako haurrentzat

T.94 681 67 76 • www.sanantonio.eus



'Takoidun Zapata Gorriak' laneako protagonistak. David Corbella

“XVI. mendeko Tabira harresituko misterioak argitu gura dituzte ‘Azeri dantza’ko pertsonaiek”

Mila Salterain abadiñarrak ‘Azeri dantza’ bere bigarren nobela publikatu du, Txalaparta argitaletxeagaz hau ere

> LITERATURA Aritz Maldonado
XV. eta XVI. mendeetako Durangaldean kokaturiko ‘Azeri dantza’ nobela idatzi du Mila Salterain abadiñarrak, Txalaparta argitaletxeagaz kalera-tzen duen bigarrena.

Historia eta fikzioa uztartu dituzu bigarren nobela hone-tan ere.

Garaiko dokumentuetan irakurritakoa besteekin partekatze-ko modu bakarra da. Nik dokumentuetan irakurritakoa nobe-latu dut; liburuko pertsonaiak dira XV. eta XVI. mendeetako gertakizun eta bizipen haiek he-larazten dizkigutenak.

Zein dokumentutan dago oi-narrituta Durangaldean koka-tzen den istorio hau?

Beste batzuen artean, Eusko Ikaskuntzak *Cuadernos Medievales*etan jasota dauzkan Durango, Lekeitio eta Lekeitioko dominiken komentuari buruz-ko XV. eta XVI. mendeko doku-mentuetan, Juan de Renaren ar-txiboan Durangoko eta Marki-nako eskopetei buruzkoa, Irar-gik sailkatuta dituen hainbat dokumentuetan, Petri de Fune-sen *Iruñako Biblia Iruditan*. Bi-bliografia ere erabili dut, hain zuzen ere adituek gaiari eta ga-raiari buruz diotena, esatera-ko: Isaac Vazquez, Soledad Sil-va, Antonio García, José Luis Orella. Orella Eusko Ikaskun-tzako *Cuadernos Medievales* bil-dumako zuzendaria zen.

Pertsonaia historikoak ere ageri dira eleberrian. Nola izan duzu horien berri?

Pertsonaia mamitsuak daude-lako gure historian. Nork ez du entzun Borgia eta medizis-tarren berririk? Cesar Borgia Vianan hil zuten XVI. mendean, Nafarroa konkistatu gura zute-nen erasoaldi bati aurre egiten



Mila Salterain
Abadiño, 1955
Idazlea

ari zela. Marcillako andereak modu dotorean bidali zituen po-patik hartzera Albako dukea-ren tropak. *Iruñako Biblia* XII. mendeko liburu ilustratu doto-rea nafar batek egin zuen, eta gaur egun Ausburg-eko uni-bertsitatean dago eta kopia bat Amiens-go liburutegian. Bes-terik uste bada ere, euskaldun-ak guztiz europarrak ziren, ez mundu txiki, basati eta iso-latu bateko biztanleak. Duran-galdeko pertsonaia historikoen artean bat aipatzearren, ho-

“Azken 800 urteotan berdin jarraitzen dugu, elkar ulertu ezinik”

“Euskaldunak guztiz europarrak ziren, ez mundu isolatu batekoak”

rra Martin Arteagaren kasua: 1512an Tabirako alkatea zen eta 1513ko udaberrian Gaztela-ko Joanaren aginduz atxilotua izan zen, Nafarroako Gudagaz loturiko kontuengatik. Azke-nean gartzelatik ihes egin zuen.

‘Azeri dantza’ idazteko proze-sua nolakoa izan da?

2015eko udazkenean hasi nin-tzen idazten, 2016ko udaberri-ra arte. Dokumentatze lanak eta zuzenketak dira gehien lu-zatzen direnak.

Txalaparta argitaletxeagaz kaleratu duzu, berri.

Nire moduko batek ez dauka ar-gitaletxea hautatzeko aukera-rik. Hala ere, argitaletxea auke-ratzerik banu, Txalaparta au-keratuko nuke, dudarik gabe. Ikustea besterik ez dago nolako edizio dotoreak egiten dituen.

Zuk irakurri duzun dokumen-tazioaren arabera zer ondorio ekarri zion Durangaldeari Biz-kaian sartzeak?

Euskal Herriko historia uler-tzeko ezinbestekoa da Nafa-rrako erresumaren historia ezagutzea. XII. mendera ar-te Durangaldea Nafarroa izan zen. XII. mendetik aurrera da Durangaldea Bizkaiko parte. Bizkaia Gaztelaren menpe ze-goen, eta dago; izango zituen be-re eskumenak, bai, baina baita ere Gaztelarekiko menpekota-suna, eta ez edonolakoa. Adibi-dez, XV. mendean nafarren eta mairuen aurka joateko Gazte-lak soldaduak eskatu zizkion Durangaldeari, eta hauek bida-li. XVI. mendean, Nafarroaren aurka egiteko Gaztelak 300 sol-dadu eskatu zizkion Durangal-deari, eta bidali egin behar izan zituen. Gerrako desertoreak ja-zarriak izan ziren eta 2.000 ma-raiko isunak edo gartzelaldiak pairatu zituzten. Bitxia bada ere, Isabel erregina gaztelarra eta bere alaba Juana Tabirara etorri zirenean lotsagarri ibili ziren Durangaldeko jauntxoak, dama eta neskatoa zerbitzatu guran. *Azeri dantzako* perso-naiek dioskutenez, herri kon-kistatu batek bere izaera gal-tzen du. Historiaz jakiteko egarria pizten den bakoitzean istiluak sortzen dira jabetasu-naren aldekoen eta aurkakoen artean, eta horrela jarraitzen dugu azkeneko 800 urte haue-tan, elkar ulertu ezinda inora ez goazela.



TURISMO BULEGOA

www.turismodurango.net

T (00 34) 94 603 39 38 | turismo@durango.eus

Kurutzia: 38 - 48200 Durango



Egin jauzi Durangora!

Durangaldeak bizi eta ezagutu!

*Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa*

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO
IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



“Nahiz eta hizkuntza txikia izan, erabili egin behar dela dio Mokotxikik”

Abenduaren 6an Saguganbaran aurkeztuko du bere azken lana Leire Bilbao Barruetabeñak

Leire Bilbao Barruetabeña
Ondarroa, 1978
Idazlea



> HAUR LITERATURA M.Z.

Durangon bizi den Leire Bilbao ondarroarrak ‘Mokotxiki’ albuma kaleratu berri du Durangoko Azokarako, Maite Mutuberriragaz batera. Bilbaok Saguganbaran aurkeztuko du bere lana, abenduaren 6an, Mutuberrir lagun duela, eta abenduaren 8an mahai-ingurua izango du Euskadi Literatura Saria jaso duten gainontzeko sortzailekin batera.

Mokotxiki albuma aurkeztuko duzu Durangoko Azokan. Zertan datza labetik atera berri duzun albuma?

Mokotxiki hizkuntza arrotasunaz mintzo da. Albumean bi lagun arteko harremana aurki daiteke, handiarena eta txikiarena. Hau umeek oso erraz identifikatu dezaten, bi animaliaz baliatu gara. Bata hipopotamo indartsua da, oihanean orro egiten duena eta animalia guztiek errespetatzen dutena. Bestea, berriz, txori txiki bat da, Mokotxiki, honek ere orro egitea izango du helburu. Animalia bien arte-

ko sinbiosiak harremanean garrantzia izango du, bata besteari lagunduko baitio.

Hizkuntza txikiek mundua handitzen duten leloa darabilzu zure azken lanean.

Mokotxiki albuma hizkuntza txikien aldeko alegoria bat da; lan honetan animaliak erabiltzen ditugu, bakoitzak bere hizkuntza aurkitu, zaindu, maitatu eta horregaz hitz egin behar duela esateko irakurleari. Nahiz eta hizkuntza txikia izan, erabili egin behar dela adierazi gura du Mokotxikik, hizkuntza txikiek mundua handitzen baitute.

‘Mokotxiki’ albumaz gain, ‘Pikondoaren balada’ lana ere Azokan izango duzu.

Bai, udaberrian kaleratu nuen lana ere Durangora eramango dugu. Gizon baten eta bere familiaren istorioa da, gerra garaian kokatuta dagoena. Gizonak pikondo batera igotzea erabakitzen du, eta handik sekula ez bajatzea. Bizitzaren aurrean eta gerraren aurrean duen jarreraz



‘Mokotxiki’, Bilbaoren eta Mutuberriren azken lana.

mintzo da gizona *Pikondoaren balada* liburuan.

“Durangoko Azoka sormenaren erakusleho bat ere bada”

Udaberrian kaleratutako lanagaz Lizardi saria jaso duzu eta iazko Azokarako ateratako ‘Piztipoemak eta beste xomorrotzuk’ lanagaz Euskadi Literatura Saria. Ereindako hazia uza ematen ari dela esan daiteke? Heltzeko denbora asko egon diren lanak dira biak ala biak. Gauzak aurretiaz nola egin gura nituen pentsatuta nuen, eta ho-

rrek gauza txukun bat egiten laguntzen du. Egia da hazia erein eta uza jaso orduko denbora pasatzen dela, baina mimoz sortu eta zainduz gero gauza politak iriten dira.

Nola hartu dituzu sari hauek?

Niretzat bai Lizardi Saria bai Euskadi Literatura Saria erreko nozimendu bat dira. Hamar bat urte daramatzat haur literatura egiten, eta hau aitoren lez hartzen dut. Hala ere, egia da sari bat jasotzea beti dela pozgarria. Baina aitortu behar dut niretzat sari bat jasotzea argazki bat ateratzea dela. Behin argazkia aterata, berritortu ere entrenatzen jarraitu behar baita hurrengo maratonia prestatzeko.

Zure lanetan, normalean, poesia eta haur literatura uztartzen dituzu. Ez al dira bi mundu desberdin?

Ez. Uste dut, eta sinestuta nago, gainera, umeek literaturagaz duten lehen kontaktua poesiaren bitartez dela. Ume jaio berri bati abesten dizkiogun lo kantuak ez al dira, ba, poesia?

Aurtengo Durangoko Azoka bertan dugu. Esaterako, Saguganbaran ikusiko zaitugu.

Bai, Maite Mutuberriragaz batera *Mokotxiki* albuma aurkeztzen izango naiz. Saguganbara oso gogoko dudana tokia da, liburuak aurkezteko toki bikaina. Saguganbaran entzuleagaz harreman zuzena sortzen da. Bestalde, abenduaren 8an ere, Euskadi Literatura Saria jaso dugunok mahai-inguru batean izango gara. Horrez gain, Azokan ere izango naiz, bertan ahalik eta denborarik gehien pasatzea gustatzen zait eta.

Zer da zuretzat Azoka?

Azoka, aurtan, sormenaren lurralde lez kateatu dute, eta sormenaren erakusleho bat ere badela esango nuke. Niretzat erakusleho eta plaza aparta da. Gainera, sortzen ari garela erakusteko balio du Durangoko Azokak, eta sortzaileen partetik, harri geldia barik, dabilen harria eta dabilen herria daukagula erakusteko.



Sanagustinalde, 12 • Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

ABENDUAK 6

18:00 Ele!

ABENDUAK 7

11:00/13:30 Holoque, Mundu onirikoa.

ABENDUAK 8

20:00 “Omentzetik ereitera” ekitaldia.

ABENDUAK 9

MIKROANTZERKI MARATOIA

12:00 Ganba alaia / 12:30 Minus ikuttua /
13:00 Sarean kateatuak / 13:30 Takoidun zapata gorria / 18:30 Takoidun zapata gorria / 19:00 Ganba alaia / 19:30 Minus ikuttua / 20:00 Sarean kateatuak.

San Agustín
KULTUR
GUINEA



Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

AZOKA EGUNETAN ETORRI GURE KARPARA EUSKO LABEL MENUA DASTATZERA



ABENDUAK 6
22:30ean
GOVERNORS
KONTZERTUA



ABENDUAK 8
21:30ean
AUDIENCE
KONTZERTUA



ABENDUAK 9
21:30ean
GLAUKOMA
KONTZERTUA



Zatoz Kurutziagara eta ezagutu gaitzazu www.kurutziagaikastola.eus

Gure hezkuntza proiektuak ikaslea du ardatz

Euskal Kultura eta Euskara ardatz hartuta, munduko beste kulturei irekia den proiektua.
Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun iraunkorra bultzatzen duena.
Eskola inklusiboaren aldekoa dena.
Gizarte justu eta iraunkorrago baten aldeko egitasmoa duena.

KURUTZIAGA IKASTOLAREN ESKAINTZA

0 urtetik 18 urte bitarteko eskaintza osoa.
Kirol eta aisialdi eskaintza zabala.
Jantokia: Ikastolan bertan egindako menua, bertoko baserritarrek ekoiztutako produktuekin egindako janaria eta janari ekologikoa.

**Harrera pertsonalizatua
eta bisita gidatuak**

Tel. 94 620 08 22 • www.kurutziagaikastola.eus

Kalitatezko
euskarazko irakaskuntza



Eskualdeko argitalpenak



Astola

Hainbaten artean

Argitaletxea: Gerediaga elkarte

Gerediaga Elkartek ikerketa eta historia ardatz dituen urtekariaren 11. zenbakia aurkeztu du. Bederratzireportaje bildu dituzte urtekarian, denerikoak: artzaintza, memoria historikoa, eskulturak, artadiak, Besoitaormatxea baserria...



Nik papaita, zuk papaita

Xabier Olaso

Argitaletxea: Pamiela

Xabier Olaso otxandiarraren haur literaturako ale berri bat argitaratu da aurtan, Pamielaren eskutik. Igarkizunak, olerkiak eta 'igarkilimak' idatzi ditu liburuan. 2005ean Haur Literaturako Euskadi Literatura Saria jaso zuen *Pupuan Trapua* liburuagaz.

Eta sagarrondoa banintz?

Paddy Rekalde / Iosu Mitxelena

Argitaletxea: Elkar

Durangon bizi den Paddy Rekaldek haurrentzako ipuina dakar oraingoan. Ipuineko umeak sagarraren haziak jan ditu eta gogoratu du eskolan irakasleari entzun diola hazietatik landare berriak sortzen direla. Anartz beldur da sagarrondo bat ez ote den bere baitatik sortuko.



Ametsondoa

Peru Magdalena

Argitaletxea: Elkar

Zer sortzen da ametsetan? Zergatik? Zer lotura du horrek gure izatearen oinarriagaz? Ametsak eta gizateriaren sinbologia uztartzen ditu *Ametsondoa* liburuan Peru Magdalena idazle durangarrak. Narrazio laburrak aurkituko ditugu batez ere, eta baita ilustrazio batzuk ere.



Azeri dantza

Mila Salterain

Argitaletxea: Txalaparta

XV. eta XVI. mendeetan Nafarroako erresuma astindu zuten gertakizun historikoei kolpatutako pertsonaiak dira nobelaren ardatza. Bere bigarren eleberri honetan, Mila Salterain abadiñarrak Erdi Arora eramango gaitu, inkisizioak jazarri eta erre zituen Durangoko ustezko heretikoen ibileren atzetik.



Pikondoaren balada

Leire Bilbao

Argitaletxea: Elkar

Iaz argitaratutako *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* liburuagaz 2017ko Euskadi Literatura Saria jaso du Durangon bizi den Leire Bilbao ondarrorak. Hala ere, umeentzako beste liburu bi ere badakartza aurtan: *Pikondoaren balada* Elkarregaz, eta *Mokotxiki* Pamielagaz.

Herejeen alaba

Ander Berrojalbiz / Joseba Sarrionandia

Argitaletxea: Pamiela

Iazko *Anbotoko herejeak* liburuaren ostean, *Herejeen alaba* idatzi du aurtan Ander Berrojalbiz durangarrak, Durangaldeko historian sakontzen duen saia-kera hain zuzen. Joseba Sarrionandia iurretarraren *Kristalezko bihotza* ipuina hartu du ikerketarako abiapuntu lez.




Baltzolako ipuinak

Rafa Ugalde

Argitaletxea: Ibaizabal

Rafa Ugalde zornotzarraren liburu mitologiko honek euskaldunon jatorria eta ondarea ezagutzeko aukera ematen du. Guztira, hamabost kontakizun dira. Besteak beste, Amaluraren sorrera eta Dimako Baltzola kobazuloko pertsonaia mitologikoak agertzen dira bere narrazioetan.



“ETXEKO NEURRIRA EGINDAKO SUKALDE ETA ALTZARIAK”



SCHMIDT ABADIÑO

Murjeta auzoa, z/g - 178 lokala

Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO

Tel.: 946 526 195

info@schmidt-abadiano.com

www.homedesign.schmidt

SCHMIDT
Cocinas y Muebles de Hogar

*Durangaldeko idazle eta musikariek
2017. urtean liburu eta disko forman egindako sorkuntzen ale hauek
eskuragarri izango dira Durangoko Azokan*



Politika Zikina
Iñaki Irasizabal
Argitaletxea: Elkar

Alderdi politikoetako morrontzak, komunikabideetako trikimailuak eta jokoen teoriak agertzen dira, besteak beste, Zornotzan bizi den Irasizabal durangarraren nobela berrian. Bere ohiko nobela beltzetatik aldentzen da liburu honetan.



Margolaria
Mikel Urdangarin
Argitaletxea: Elkar

2015ean bakarka eta zuzenean aurkeztutako lan sotil haren ondoren, Mikel Urdangarinek banda osoaren musikalitateaz horniturik agertzen ditu oraingoan bere konposizio berriak. Hamar kantugaz, gizakia- ren barnera begiratu bat egiten du.

Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek
Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek
Argitaletxea: Autoekoizpena

Durangoko Azokan kaleratuko du Durangaldeko laukoteak bere lehenbiziko lana. Diskoa zortzi abestik osatzen dute, eta Musikazuzenean etxearen standean topatu ahalko da. Eurek sortutako rantxerak egongo dira entzungai, Mexikotik datozen doinuak baitira euren oinarri.



Beats of freedom
Mocker's
Argitaletxea: Autoekoizpena

Ohiko rocka baino urrats bat urrunago doaz Mocker's talde durangarraren *Beats of Freedom*-eko abestiak. Adibidez, diskoa ixten duen (R)evolution abestirako, soken laguntza izan dute. Grabazioan Ane Ibarak (biolina) eta Nerea Aizpuruak (biolontxelo) parte hartu zuten.



Sermond's
Sermond's
Argitaletxea: Autoekoizpena

2016ko urrian eman zuten amaitutzat *Libelula* aurreko diskoaren bira, eta lan berriaren sorkuntzan ibili dira ordutik. Sei kantuz eginiko hirugarren lana da eurena; guztira, taldearen bosgarren diskoa da. Taldearen izen bera eman diote, gainera. Musikazuzenean-en standean erosi ahalko da.



Hankapuntetan I
Izaro
Argitaletxea: Autoekoizpena

Izaro mallabitarrak *Om* izeneko diskoa kaleratu zuen iaz. Bigarren lana sortzen dabil uneotan, 2018an kaleratuko duena. Baina, aurtengo azokara nobedade berezi bat ere ekarriko du, autobertsioak eta kantu arraroak jasotzen dituena. Stand propioa edukiko du, Iker Laurobagaz batera.


Erraiak
Bultz!
Argitaletxea: Mauka

Iaz sortu zen Elorrioko taldea, eta kontzertu batzuk eskaini ostean, lehen diskoa labetik atera berri dute orain. Punkrocka dute ardatz, eta letretan aldarri sozial zein politikoak dira nagusi, hartu-eman pertsonalei ere lekua eskaini dieten arren. Mauka diskoetxearen standean ipiniko dute salgai.



Bizimina
Nebrashka
Argitaletxea: Autoekoizpena

Alerta, Tuesday Evenings, Sybaris, Sermond's eta Yoko Out proiektuetan parte hartutako musikariek osatu dute aurtien Nebrashka rock talde durangarra. *Bizimina* izeneko lan laburra sortu dute, kantu bi jasotzen dituena, diskoaren izen berekoa bata, eta *Animaliak* bestea.





BUZKANTZ

Elorrio 2017 jaia

abenduak 8 - 9 - 10

www.elorrioturismo.eus • www.elorrio.eus



Elorrio udala



Iturrizoro



EUSKARALDIA



EUSKARAK
365
EGUN



Elorrio Merkataritza Ekarria

Platerueneko eszenatokiko protagonista nagusia rocka izango da Azokako egunetan

Bertoko produktuekin eguneko menuak eskainiko dituzte Euskal Sagardoagaz eta Hazigaz elkarlanean



Poli Karpo



Argazki Press

Besteak beste, Arkada Social talde arrasatearrak eta Jabier Mugurazak aurkeztuko dute beraien azken lana.

> MUSIKA A. Basauri
Sormenaren lurraldeak kutxatuta, bor-bor izango dugu gaugaroa Plateruenean, abenduaren 5etik 10era bitartean. Kontzertu handien plaza bihurtuko da,

izen handiko talde eta musikarien kontzertuez gozatzeko aukera emanez. Aurten rocka izango da Platerueneko eszenatokiko protagonista, puntako taldeen doinu indartsuek lagunduta.

Audience taldeak Kuban grabatutako diskoa aurkeztuko du

Azoka bezpera aprobetxatu dute Euskal Herria Zuzenean festibalaren sostengu gaua antolatzeke, eta Plateruenean joko dute Sorotan Babies, Pelax, Mice eta Bultz! taldeek. Abenduaren 6an, berriz, Z.E.R.O. diskoa aurkeztuko du Governors taldeak.

Taldearen urteurrena ospatzeko argitatutako 20 urte eromena besarkatzen bilduma aurkeztuko du Arkada Social talde arrasatearrak. Tolosako Glaukomak, berriz, Kalima izeneko hirugarren diskoa taularatu du. Hurrenez hurren, abenduaren 7an eta 9an izango dira antzokian. Audience taldearen txanda izango da abenduaren 8an. Kuban grabatu duten eta hango musikarien kolaborazioa

ere baduen *Isla* disko berria aurkezttera etorriko dira Durangora. Guztiek 23:00etan eskainiko dute kontzertua.

Zeze eta Jabier Muguruza egongo dira abenduaren 10ean. Elektronikoa eta instrumentu tradizionalak nahasten dituen Miarritzeko taldeak eguerdian joko du. 20:00etan, berriz, Jabier Muguruza igoko da taula gainera. Kantautore lez kaleratu duen 15. diskoa aurkeztuko du: *Leiho bat zabalik*. Urte askoan lagundu dion oinarri akustikoa alde batera utzi, eta gitarra elektrikoak (Ander Mujika) eta elementu elektronikoak (Javi Vicente, Carasueño) ditu ardatz zortzi abestiko lan honek.

Eguneko menua

Bestalde, bertoko produktuez osatutako eguneko menuak emango ditu Plateruenak aurtan. Euskal Sagardoa elkarteagaz eta Hazi Fundazioagaz hitzarmena lotu du horretarako, eta 60-70 lagunentzako karpa bat jarriko dute antzoki alboan.

PLATERUENA KONTZERTU HANDIEN PLAZA DA!

ABENDUAK 6, eguaztena

22:30 Governors
Z.E.R.O. 'Zikloari Ekin dio Rhinopalpak Ohartzera' diskoa aurkezteko kontzertua.

Sarrera: 6 € webgunean, 9 € txarteldegian.

ABENDUAK 7, eguna

23:00 Arkada Social
'Eromena besarkatzen' diskoa aurkezteko kontzertua.

Sarrera: 8 € webgunean, 10 € txarteldegian.

ABENDUAK 8, barikua

22:30 Audience.
'Isla' diskoa aurkezteko kontzertua.

Sarrera: 8 € webgunean, 10 € txarteldegian.

ABENDUAK 9, zapatua

22:30 Glaukoma
'Kalima' diskoa aurkezteko kontzertua.

Sarrera: 8 € webgunean, 10 € txarteldegian.

ABENDUAK 10, domeka

13:00 Zeze. Zuzeneko kontzertua. Doan.

20:00 Jabier Muguruza. 'Leiho bat zabalik' diskoa aurkezteko kontzertua. Doan.



SUVWOW




SUV BERRI KONPAKTUA CITROËN C3 AIRCROSS

CITROËNek nabarago du ERABATEKO KONTSUMO MISTOA (l./100 km) / CO2 EMISIOA (g/km): CITROËN C3 AIRCROSS: 4,0-5,6 / 104-126

ZAER MOTOR, S.A APALATEGUI kalea, 1- EIBAR- GIPUZKOA
POL.IND. U.A.I., 3-1- IURRETA - TEL.: 943 707 033

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Anboto TABERNA JATETXEA

Goienkale kalea, 14
Durango
Tel.: 946 811 020



- EGUNEKO MENUAK - MENU BEREZIAK - KARTA -
- ERA GUZTIETAKO PINTXOAK - RAZIOAK -
Aurrekontuak kontsultatu konpromisorik gabe!

ROTU-NET

LATEX ERROTULUAK

www.rotunet.net

“Ezin dugu abestu matxismoaren biktima diren emakumeen paperetik”

Glaukoma taldeak Plateruenean joko du abenduaren 9an, ‘Kalima’ diskoa aurkezteko

> **MUSIKA** Markel Onaindia

Hip-hop azidoa egiten du Glaukoma taldeak. Hirugarren diskoagaz, taldea hazten eta zaleak irabazten ari da. Juan-txo Arakama abeslariak egin dio kasu kazetariari telefonoz.

Plateruenean joko duzue Azokan. Zer espero duzue? Zelako kontzertua izango da?

Badakigu Azokaren bueltan Euskal Herri osoko jendea egoten dela kontzertuetan. Beraz, berezia izango da. Oraindik ez dugu itxita, baina sorpresaren bat egotea ere bada gure asmoa.

Azokan sarritan egongo zarete standean?

Bai. Bonbereneako standean egongo gara presente, eta, ahal den neurrian, lan kontuak direla-eta, taldekideok bertan egoten saiatuko gara.

Talde ugari egin dute indarkeria sexistaren aurka, baina ez askok gizonen paperetik. ‘Gure kaiola’ abestiagaz, nobedade bat da zuena.

Gure artean asko hitz egin dugun gai bat da, eta natural atera

da letra. Esloganak gure egin ditzaiegu, baina taldekideok eta ekipokoak denak gizonak gara, eta, nire ustez, ezin dugu abestu matxismoaren biktima diren emakumeen paperetik. Guk bestelako matxismo bat sufritzen dugu. Gizona naiz, zisgeneroa, heterosexuala, zuria eta mendebaldekoa, eta hori kontuan hartuta idatzi behar dut.

Duela 10 urteko tendentziak eta gazteen gustuak ez dira gaur egungoak.

Hori aldatu egin da, eta munduko estiloa ere bai. Gaur egun munduko irratietan entzuten den musika ia gehiena elektronikaz egiten da. Euskal Herria ere mundu horren baitan dago. Guk soundsystema gogoko dugu, eta dantzaren aldeko deia egiten dugu, dantzak jendeari on egiten diola iritzita.

Kapitalismoak jendearen jarreraren eragiten duela nabarmentzen duzue diskoan.

Pasaiaiko portuan jeke errusiar baten megayatea sartu zen, eta Teleberrin albiste pozgarri lez eman zuten. Baina beste non-



Olatz Artola
Tolosaldeko Ataria

Juantxo Arakama
Tolosa, 1989

Glaukoma taldeko abeslaria

“Klasea da bereizten gaituena, ez jatorria”

baitetik etorritakoen kasuan ez da horrela eskaintzen, eta arrisku moduan ere azaldu izan da euren helduera. Klasea da bereizten gaituena, ez jatorria.

“Letrak natural irteten zaizkit, ez dakit orri zuriari gezurrik esaten”

Egurra banatzen duzue, eta horren adibide da ‘One, two’ abestia. ‘Durangoko Azoka euskal photocalla’ diozue abestian. Zergatik kritika hori? Mundua nola dagoen ikusita, labor geratzen ote naizen zantza izaten dut sarri. Durangoko Azokan egon behar dugula uste dugu. Baina, bestalde, ez zaizkigu gustatzen Azokan ikusitako

gauza batzuk. Mitifikazioena, argazkien kontua... Gauza horiek industriari mesede egiten diotela uste dugu, entzuleari berri baino.

Zuk idazten dituzu letrak? Zergatik gaztelaniaz ere bai?

Pasioz egiten dudana gauza bat da. Letrak natural irteten zaizkit, ez dakit orri zuriari gezurrik esaten. Kontzientziak egin dako disko bat izan da, denbora hartuta. Bizitza elebidunekoak gara, eta gaztelaniaz idaztea ere gura dut. Uste dut ondare bat dela, gainera.

APAINKETAK ROYUELA
BERNIZADURAK-LEUNKETAK

Jokatu zure espazioekin modu xume eta pertsonalizatuan

Kalebarria, 40 Durango · Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D - 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION

Eltua Industr., 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890

Tronperri kalea, 1 DURANGO
Tel.: 946 811 737

**Eraikuntzako materiala
Zeramika eta gresa**

Bizkarra
Jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
Tel.: 946 812 026
burdi-kurutze@hotmail.com

**Ez daukazu janaria prestatzeko astirik?
Guk lagunduko dizugu
Ettxera eroateko janaria, betikoa,
etxekoaren modukoa**

Folder

**Ostegun
eta larunbatean
irekita**

ZUMALAKARREGI KALEA, 10
DURANGO
Tel.: 946 21 73 42
www.folderdurango.es

‘Erraiak’ diskoa aurkezteko bira hasiko du Bultz! taldeak Durango Azokan

Durangoaldeko eszena musikalean loratu den talde berria da Bultz!, Elorrio eta Abadiñotik datorrena



Ezkerretik hasita, Gallastegi, Areizaga, Larrañaga eta Arrieta.

> MUSIKA Markel Onaindia Durangoaldeko eszenan talde berri bat loratu da azken urtean, punkrock musika zabaltzera datorrena. Bultz! izenagaz, Elorrio eta Abadiñotik datoz gazte hauek, hasiberriaren ilusioagaz. Urrian kaleratu zuten euren lehen diskoa, *Erraiak*, eta

Ahotsenean aurkeztuko dute hilaren 8an, 13:00etan. Liher Larrañaga abeslariak azaldu du bira bati hasiera emango diotela hurrengo barikuko kontzertuagaz, Euskal Herriko hainbat gaztetxe eta areto zeharkatuko dituen. Tartean, zelan ez, taldearen sorburu den Elorrioren

ere egongo dira, gaztetxean, ur-tarrilean.

“Argi geneukan punkrocka egin gura genuela, eta euskaraz”

Diskoaren grabaketa bi zatatitan egin dute. *Crowdfunding* bidez finantzatu direnez, diru ekarpena egin dutenei zuzenean banatu diete diskoa, labetik atera eta segituan. Pozik daude emaitzagaz. Diskoan zer topatuko dugun galdetuta, honela esplikatu du Larrañagak: “Dis-

ko oso betea da. Punkrockaren estilo amerikarretik dauka, gure eraginak agertzen dira, abesti batzuk gogorrak, beste batzuk suabeak...”. Abesti denak eurek konposatu eta idatzi dituzte, euskaraz. “Argi geneukan punkrocka egin gura genuela, eta euskaraz. Abestietarako tresna bat da euskara, eta gustatzen zaigu horrela idaztea”, gaineratu du.

“Ikuspegi errebeldea”

Larrañagak dio “ikuspegi errebelde” bategaz landu dituztela letrak. Deneriko gaiak jorratu dituzte: egoera soziala, Euskal Herrian bizi izan den eta oraindik bizi den egoera, presoak,

“Gerran itzalean egondako emakume bati erreferentzia egin diogu”

laguntasuna, emakumeen aurkako biolentzia, telebista, Gerra Zibila... “II. Mundu Gerran itzalean egondako emakume bati erreferentzia egin diogu, nazien aurka borroka egin zuena”.

Baterian aldaketa

Talde 2016an jaio zen eta kontzertuak eskaintzen hasi ziren. Larrañagaz batera, Xabier Gallastegi *Xagu*, Jon Ander Areizaga *Txibillo*, eta Ibai Arriabalaga hasi ziren, baina azken honek taldea utzi berri du, eta Xabier Arrieta sartu da bere partez, bateria jotzeko. Beraz, etapa berri bati ekingo diote Bultz!-ekoek.



UAI, 1. indutrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

DIBA
K O O P E R A T I B A

**Durangoaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



TAKET zehaztasunak zaintzen dituelako bereizten da, bai inportatutako altzarietan, bai bere tailerrean egindakoetan.



**SUKALDEKO eta
KOMUNEKO ALTZARIAK**

DURANGO Olleria, 3
Tel.: 946 201 516
ZORNOTZA San Miguel, 16
Tel./Fax: 946 734 583

Bisitatu gure webgunea:
www.durango.jimdo.com



Ostalaritza gida

anboto

Abadiño



ABARKETERUENA

Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

Amorebieta-Etxano



KANBIO JATETXEA

San Migel Dudea auzoa, ZORNOTZA
Tel.: 946 730 033

Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.

Durango



IBAIZABAL KAFETEGIA

Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanbursesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

Durango



KOBIKA JATETXEA

San Ignazio, 8 - DURANGO

Tel.: 946 810 003

Egile sukaldaritza eta tradizionala. Menu bereziak eta karta.

Durango



MIKELDI GELTOKIA

Kalebarria, 7 - DURANGO

Tel.: 946 002 351

Alde zaharrea kokatua. Pintxo gozoak eta giro alaia

Durango



OLAJAUREGI JATETXEA

Kurutziaga Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864

www.olajauregi-jatetxea.com

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egutero zabalik.

Durango



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus

Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!

Anbotoren lagunak

Ibarra Sagardotegi-Garagardotegiaren eskutik bi pertsonentzako menua zozkatu dugu Anbotoren Lagunen artean.
Irabazlea: **Rosi Aranburu Derteano**



ON EGIN!

Amorebieta-Etxano



IBARRA Sagardotegi-Garagardotegia

Ibarra auzoa, z/g - ZORNOTZA
Tel.: 946 731 100

www.ibarra-sagardotegi.com

Garagardotegia eta sagardotegia; menu ezberdinak. Gure upategian egindako sagardoa.

Os-tatu gida

anboto

Abadiño



BURDI-KURUTZE

Urkiola gaina, 6 - ABADIÑO

Tel.: 946 812 026

burdi-kurutze@hotmail.com

Urkiolako parke naturalean dago. Lagunarteko tratua.

Durango



JUEGO BOLOS

Sanagustinalde, 2-1. pisua - DURANGO

Tel.: 946 215 488

www.juegobolos.com

Erdigunean. Etxeko giroa. Estilo moderno eta beroa.

Muxika



ASTEI

Muniketa gaina, Bizkaiko begiratokira bidean - MUXIKA Tel.: 946 732 318

www.restauranteastei.com

Baserri berriztua. Tximiniadun egongela. Jatetxe zerbitzua. Haurrentzako parkea eta lorategi handia.

Komunitate digitalaren indarraren erakusleihoa izan gura du Kabi@k

Hitzaldiez gainera, tailerrak eskainiko dituzte egunotan. Teknologia euskararen normalkuntzan izan dezakeen eragina nabarmendu gura dute

KABI@ A. Maldonado Euskararen, kulturaren eta eduki libreen gunea da Kabi@. Sei garren urtez, kultura digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web garatzaile eta ekintzaileen topagunea izango da Areto Nagusiaren alboko kabia itxuradun domo geodesikoa.

Aurkezpenez gainera, solasaldi ugari ere egongo dira. Edizio honetan, gainera, tailerrek pisu handia dute egitarauan. “Kabi@ parte hartzeko gune bat da, batez ere. Bisitaria

ongi etorria da, noski, baina guk bere ekarpena jaso gura dugu; parte hartzera gonbidatu gura dugu hona datorren jendea, mahai-inguruetan jarri eta proposamenak egitera, eta ikasitako praktikan jartzera”, azaldu du Gorka Julio Kabi@ guneko arduradunak. Abenduaren 7a, adibidez, aukera aproposa izango da hori egiteko. Skura Mobil eta APPInventor taldeen eskutik, mugikorrerako aplikazioak egiten ikasi ahal izango da.

“Kabi@ parte hartzeko gunea da, ikasitako praktikatzen”

Arratsaldean, oster, pribatasunak aro digitalean dituen erronkei buruz hausnartzeko tarte egongo da. Hackin#badakigu elkarteko kideek autodefentsa digitala zer den eta nola aplikatu erakutsiko dute.

Auzolanaren indarra

Hainbat esperientzia eta proiektu berri emateaz gainera, mugimenduaren indarraren erakuslea ere bada Kabi@. Horrela, zenbait komunitate izango dira abenduaren 6ko eta 8ko protagonistak. Hain zuzen ere, komunitateetako kideek antolatuko dute egun horietako tailer eta hitzaldi sorta. “Badaude komunitate batzuk interes ekonomikoetatik kanpo antolatu eta funtzionatzen dutenak; horiei ere hitza eman gura diegu”, azaldu Gorka Julio guneko koordinatzaileak.

Game Erauntsiako kideen eskutik, Gamer gela bilakatuko da kabia itxurako gunea abenduaren 6an. Bideo-jokoei eta euskarari buruzko berbaldi eta tailer multzoa eskainiko dute bertan. Abenduaren 8an, berriz, Wikipediaren eguna izango da. Hemen ere, hitzaldi eta tailerrak eskainiko dituzte, Durangoko Azoka komunitate digitalaren

ekarpenak jasotzeko baliatu gura da horrela. “Wikipedian dagoen indarra ez da nolanahikoa, euskarazko hiztun kopuruari erreparatuz gero”, dio Gorka Juliok. Wikilari izaten erakutsiko dute bertan.

Genero irakurketa

Abenduaren 9an hezkuntzagaz lotutako aurkezpenak egongo dira. “Azkenaldian hazi egin dira Googlek hezkuntzan duen eraginari buruzko kezka, eta gai horretan sakontzea erabaki dugu”, argudiatu du Juliok. Horrela, Blogetan.eus, Klikasi.eus, Izarkom, Mitologik eta Hezkuntza Teknologian proiektuen berri egongo da, besteak beste.

PuntuEus fundazioak antolatuta, Emakumeak Teknologian mahai-ingurua egongo da abenduaren 10ean. Leire Palaciosen moderatutako du. “Komunitatearen irakurketa egingo da bertan, generoaren ikuspuntutik aztertuta”, nabarmendu du Juliok.



Hitzaldiez gainera, tailerrak ere egongo dira Kabi@n; parte-hartzea sustatu gura dute, bereziki.



Joxe Rojas hitzaldia eskaintzen Kabi@ gunean.

KABI@ DIGITALAREN PLAZA DA!

ABENDUAK 6, eguaztena

11:00 Gamer gela. Bideo jokoak eta euskara uztartzen dituen tailer eta hitzaldi multzoa.

16:30 Gamer gela. Bideo jokoak eta euskara uztartzen dituen tailer eta hitzaldi multzoa.

ABENDUAK 7, eguna

11:00 IKASLE EGUNA. Android gailuentzako aplikazioak sortu Appinventor erabiliz. Ikasleentzako tailerra.

16:30 IKASLE EGUNA. Autodefentsa digitalaren hastapenak. Tailerra. Irekia

ABENDUAK 8, barikua

WIKIPEDIA EGUNA

11:00 ‘Liburuzainak, idazlezainak eta literatura Wikipedian’. Hitzaldia.

12:00 ‘Wikilari izan nahi?’ Tailer irekia, Wikipedian editatzen ikasteko.

15:30 ‘Wikipedia eta hezkuntza’ proiektuaren aurkezpena. Hitzaldia.

16:30 ‘Wikilari izan nahi?’ Tailer irekia, Wikipedian editatzen ikasteko.

18:00 Photocalleko irudiak antolatzen eta berrerabiltzen: Durangoko Azokako argazki uza.

ABENDUAK 9, zapatua

11:00 Blogetan.eus eta Klikasi.eus. Euskal blogarientzat eta euskarazko blogen irakurleentzat erreferentzia gunearen aurkezpena. Iurdana Acasuso (Azkue Fundazioa).

11:20 Izarkom, Euskal Herriko komunikazio operadore kooperatiboa. Aurkezpena.

11:40 Mitologik Basoa. Euskal mitologiaren museo didaktikoaren aurkezpena. Mitologik Basoa S.L.

12:00 ‘Teknologia hezkuntzan. Zeinen esku? Ardurak eta proposamenak’. Solasaldia.

16:30 Marrazkeraz. Marrazkilari Euskaldunon Topagunea. Zuzeneko marrazkia egiteko deialdi irekia. Azokako guneetatik eta Durangoko kaleetatik egunean zehar. 16:30ean aurkezpena Kabian.

17:30 Hirikilabs. Zer egiten dugu hiri laborategi batean? Etorri eta ikusi.

ABENDUAK 10, domeka

11:00 Emakumeak teknologian. Solasaldia



Baskepensioneak etorkizuna prestatzen nahiz helburuak ezartzen eta betetzen lagundu nahi dizu.

AURREZTU, AHAL DUZU ETA

BASKEPENSIONES.
BANAKAKO BGAEa

Kutxabank SA Bazkide sustatzailea / Kutxabank Gestión IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077.
Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa,
0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa.

> MUSIKA Aitziber Basauri

Bizimina rock doinuez betetako lehenengo singlea erakutsiko du Nebrashkak —Ander Bastida, Gorka Muñoz, Alain Asenjo, Markos Agirre eta Txerra Gonzalez—, abenduaren 6an, Ahotsean. Maiatzean grabatutako lana irailean aurkeztu zuten lehenengoz, Berrizen, eta, orain, Durango Azokan erakutsiko dute, etxean. “Gure herrian eta gure lagunaren eta familiakoen aurrean jotzeko aukera izango dugu”, nabarmendu du Gorka Muñozek, Azokak ematen duen “presentzia” ahaztu gabe.

Alerta, Tuesday Evenings, Sermonds, Sybaris, Yoko Out... taldeetan ibilitako esperientzia handiko bost musikaririk sortu dute Nebrashka. “Hainbat taldeetan ibiliak gara. Yoko Out taldean denok egon ginen. Hala ere, hainbat aldaketaren ostetik eta musika aldetik ere eboluzio nabarmena izan genuela ikusita, etapa berri bati ekitea erabaki genuen”, dio Muñozek. Aldaketa handia da. “Country eta folk doinuek nahastuak rock doinuekin nahastuak genituen Yoko Outen. Nebrashkan, aldiz, indar handia hartzen dute rock doinuek”, azaldu du Nebrashkako kideak. “Kanta potenteak dira, zenbaitetan gogorak, baina ahots melodia batez apainduak”, gaineratu du.

Erakusleho “itzela”

Trantsizio hori islatzen du Azokan aurkeztuko duten lanak. *Bizimina* eta *Animaliak gara* abestiak batzen ditu autoekoiztutako singleak. “%100 Nebrashka da *Bizimina*, baina *Animaliak Gara* abestiaren %20 Yoko Out da”.

Doinu indartsuz betetako ‘Bizimina’ aurkeztuko du Nebrashkak Ahotsean

Nebrashka taldearen lehenengo lana entzuteko aukera egongo Durango Azokan, abenduaren 6an



Alerta, Tuesday Evenings, Sermonds, Sybaris, Yoko Out... taldeetan ibilitako bost musikaririk sortu dute Nebrashka.

“Urtean hiruzpalau kontzertu ematea. Horixe du helburu Nebrashkak”

Hala azaldu du Muñozek, eta, egindako lana ezagutarazteko, Azoka erakusleho “itzela” dela aitortu du. “Urtean hiruzpalau kontzertu eskaintzea. Horixe du orain helburu Nebrashkak”.

Hala ere, “gutxieneko ospe bat behar da kontzertu horiek leku polit batean jo ahal izateko eta, gaur egun, ematen du Azokan ez dagoena ez dela existitzen. Presentzia hori ematen du”. Horretara dator abesti bik osatutako lan labur hau.

Ander Bastidarenak dira abestien letrak. *Bizimina* minbiziagaz sortutako hitz joko bat da. “Minbiziari buruz hitz egiten duen abestia da, gertuko esperientzia pertsonal baten

“Nebrashka moldatu da kide bakoitzaren estilora”

haritik sortutako kanta. Dena ondo irten zen, eta beraz, mezu baikorra ere badu”, azaldu du Muñozek. *Animaliak gara*, berriz, “trantsizio abestia” da. “Melodikoagoa agian, entzuteko

errazagoa. Izan ere, hein handi batean Nebrashka den arren, Yoko Out ere bada zati batean”. Gizakiari eta bortizkeriari buruz ari den abestia da hori.

Diskoa, hurrengo erronka

Estilo oso desberdinak dituzten bost musikari batzen ditu taldeak, eta bakoitzaren “esentzia” hartu du Nebrashkak. Hala uste du Muñozek. “Nebrashka moldatu da taldekide bakoitzaren estilora, ez alderantziz. Horregatik diogu oso era naturalean sortutako abestiak direla”. Datorren urtera begira diskoa kale ratzea da erronka. “Hala ere, gure erritmoa. Gehienok familia dugu, ume txikiak, eta horrek baldintzatu egiten gaitu”, gaineratu du. Koba estudioan grabatu zuten *Bizimina* PiL.T. taldeko Xanperen laguntzagaz. “Erraztasun guztiak eman dizkigu grabatzeko, eta oso pozik gaude lanagaz. Diskoa ere berdin landu gura dugu eta hurrengo urteko uda osterako gura genuke edukitzea”. Autoekoiztua izango da hori ere, “bestelako aukera politen bat sortzen ez bada”.

Musika Zuzenean-en erakustokian egongo da salgai singlea Azokan, hiru euroan. Autoekoiztuta edo diskete txikiekin grabatutako 40 bat talderen lanak izango dira bertan.



MANTENTZE-LANAK KOMUNITATEETAN
SATE (Kanpoko isolamendu termikoaren sistema)
ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA
FATXADA AIREZTATUAK
TEILATUAK

646 35 31 99
info@ametsa.es
DURANGO





ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



Durango kirol klubak bosgarren urtez antolatu du lasterketa.

Hamabosgarren urtez korrika eginez gogoratuko dute Joseba Jaka

Jaka euskaltzalearen oroimen lasterketak abenduaren 10ean izango dira. Lehenengo, gaztetxoek parte hartuko dute; ondoren, nagusiek

> LASTERKETA M. Zuazubiskar Joseba Jaka euskaltzale eta kirolzalea omentzen duen probaren hamabosgarren edizioa egingo dute abenduaren 10ean. Durango Kirol Taldeak antolatutako lasterketa guztiek Ezkur-diko plaza izango dute abiapuntu, eta parte-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin, hainbat zirkuitu antolatu dituzte partaideen adin-tarteak kontuan hartuta.

Lasterketa nagusia 11:45ean hasiko da, eta korrikalariak sei kilometroko ibilbidea osatu

beharko dute. Durango Kirol Taldeak antolatzen duen lasterketako izen-ematea abenduaren 9ra arte egin daiteke, www.kirolprobak.com webgunean. Parte hartu gura duenak 12 euro ordaindu beharko ditu. Lasterketa egunean bertan ere eman daiteke izena, 11:15 baino lehen. Abenduaren 10ean izena ematen duenak, baina, 15 euro ordaindu beharko ditu.

Lasterketa nagusiaren aurretik, urtero lez, gaztetxoek lasterketak egingo dituzte. 10:45ean, 2008an jaiotakoek edo gaztea-

goak direnek 500 metroko buelta txikia egingo dute. 11:00etan, 2006-2007. urteetan jaiotakoek ere distantzia bera egingo dute, eta 11:15ean, 2003, 2004 eta 2005. urteetan jaiotako gazteek 800 metroko buelta ertaina bete beharko dute.

Nagusien lasterketa 11:45ean hasiko da, Ezkurdiko plazan

Umeen lasterketako izen-emateari dagokionez, irteera lekuan bertan eta proba hasi baino ordu erdi lehenago egin ahal izango dela ohartarazi dute antolatzaileek.

Zozketak lasterketa ostean Bestalde, Joseba Jaka lasterketako antolatzaileek jakitera eman dutenez, lasterketa nagusia bukatutakoan sari banaketa eta oparien zozketak egingo dituzte korrikalarien artean.

Gainera, helmugaratu ostean, korrikalariak hornidura puntua izango dute Ezkurdin. Bertan, fruta, kafea eta uraz gain, txokolatea banatuko dute, Saltsanek antolatuta.

Horrez gain, Durangaldeko baserritar batzuen produktuak dastatzeko aukera ere egongo dela adierazi dute lasterketako antolatzaileek.

Ibarrondoren hiru estreinaldi, Silboberriren urteroko zitan

> MUSIKA M. Z.

2005az geroztik, Silboberri txistu taldeko kideek Durangoko Azokako egunetan 'Txistua XXI.mendean' zikloa antolatzen dute. Aurten ere, Durangoko Azokara bisitan datozen lagunek urteroko kontzertura joateko aukera izango dute. Abenduaren 9an, 19:30ean, San Frantziskoko elizan egingo den ikuskizunean Felix Ibarrondo musikariaren hiru estreinaldiak gozatzeko aukera izango dute.

Lehenengo estreinaldia Aitor Amilibaren eskutik joango da; bigarrena, François Rossé konpositorearen eskutik; eta hirugarrena, Txaber Fernandezek zuzenduko du. Fernandezek zuzendutako *Aruntzka* lanean Jose Antonio Hontoria, Xabier Calzada, Sergio Barranco, Maddi Arana, Ivan Casado, Elur Arrieta eta Iñar Sastre musikariak arituko dira.

'Txistua XXI.mendean' zikloko bigarren zatian, berriz, txistuagaz soilik jotako melodiez gozatzeko aukera egongo da. Sergio Torices txistulariak Maria Eugenia Luc konpositorearen abestia joko du.

Silboberriren jaialdiari Iñaki Martinek eta Fernando Aurrekoetxeak emango diote amaiera, Iñaki Estradaren *Hiru* eta Mikel Chamizoren *Danbor* lanak jota.

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

hitz #gomendioak
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HEREJEEN ALABA
Ander Berrojalbiz & Joseba Sarriena
2017

NUR ETA HERENSUGEAREN TENPLUA (DVD)
Juanba Berasategi
2017

BAS(H)OAN
Beñat eta Julen Achiary & Joseba Irazoki
2017

ARANTZA ÁLVAREZ
PSIKOLOGOA - SEXOLOGOA
Nº Col. GZ-1517

·Orientazioa-Sexu informazioa

·Sexu terapia

·Bikotekide aholkularitza

·Bikotekide arteko haustura gainditzeko laguntza

Kontsulta Durangon Eibarren eta Donostian

Tel.: 645 732 388
sexologiaypareja@hotmail.com
www.centrodesexologia.com

A. Urreta
podólogo

Finara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

UXARTE
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAZ ENKARGUZ
Gutxienez 15 laguneko taldeentzako

“Azokan zaleekin bat egin eta euren iritziak bertatik bertara jasotzeak bete egiten zaitu”

Berri Txarrak taldeak ‘Infrasoinuak’ diskoa aurkeztuko du Ahotsenean, eta Azokako standean aleak sinatzen egongo dira

> MUSIKA Markel Onaindia

Etorkizunaren iragarle izan barik, argi asmatu daiteke Durangoko Azokako nobedade indartsuetako bat izango dela Berri Txarrak taldearen ‘Infrasoinuak’ diskoa. Bederatzigarren lana da dagoeneko, eta, denboragaz, zaleen irrika gorantz doa. Euskal Herriko lehen kontzertu ofiziala BECen eman-go dute, martxoaren 17an, eta, aurretik, Asiatara eta Australiara joango dira. Galder Izagirre eta David Gonzalezegaz batera hirukote orekatua osatu duen Gorka Urbizuk erantzun die galderei, disko berria erditu eta gutxira.

Imajinatzen dut ama batek ume jaio-berri bat bezala hartuko duela musika-riak bere eskuetan disko berria. ‘Denbora Da Poligrafo Bakarra’ hirukien ostean dator ‘Infrasoinuak’. Zerk egiten du berezi?

DDPB disko hirukoitz bereziaren ondortik, disko laburra dakargu orain. Musika ez dakar hausturarik, baina zutabe sendoak dauzkan lana dela esango nuke. 10 kantuekin asebeteta irten ginen estudiantik eta, laburra izanagatik, lan honek gure DNA-n dauden eragin ezberdinak biltzen ditu.

Harritzen nau munduan zehar biraka ibili bitartean kantu berriak sortzeko duzuen gaitasunak. Sorkuntzak ba al du etenik kantugilearen buruan?

Sormenaren radarra ez duzu sekula gutziz itzaltzen, baina, normalean, disko bat grabatuko dugula erabaki arte ez naiz kantuak osorik konposatzen hasten. Bitarte horretan ideiak, egunerokoak dakartzan apunteak, esaldiak edo gitarra riff batzuk har ditzaket, baina nahiago dut disko bat epe jakin batean landu, trinkotasunaren alde egiten duelakoan.

Bill Stevensonengana bueltatu zarete diskoa labean sartzeko. Pozik zaudete emailzagaz?

Oso pozik. Oraingoan, DDPB-ren hirugarren atalean ez bezala, bere erara egin dugu. Horrek esan gura du benetan zorrotzak izan garela denok estudioan, eta zinez poztekoa izan da Billek eta estudioko ekoizle ekipo osoak izan duen enjaimendua. Maketa bidali genienetik maitemindu egin ziren kantuokina eta hori nabaritu egiten da.

Letrei erreparatuta, nabarmentzeko esaldi eta hitz-jokoak dakartzazue berriro, ‘Troyako smartphoneak’, adibidez. Norbere aukeratik gauzak aldatzeko deialdi bat nabari da. Zerbaiti itxaroten al gaude?

Halako lozorro orokor bat begibistakoa da, geure buruetatik hasita. *Dardararen bat* kantuak irudi adierazkor bat dakar, jendea makurtuta, belarriak trenbidean, norbait gure bila etorriko zain edo.

“Isolamendua izango da bolaran jarriko duten izurritea” diozue ‘Spoiler’ kantuan. Musika ez al da isolamenduari

aurre egiteko arma onenetako bat?

Kantuak partekatzea, zaleak zure hitzak bere egiten dituela ikustea bada modu bat zerbaiten parte sentiarazteko.

Disko berriagaz, zer piztu gura duzue entzuleen bihotz-buruetan?

Infrasoinuak ditu ardatz diskoak, gure artean egonagatik jaramonik egiten ez diegun alarma hots horiek. Infrak bera-gaz dakar azpian egote hori, eta keinu egiten diegu aintzat hartuak izateko borroka egin behar duten norbanako, kolektibo edo herriei. Kulturari buruzkoa ere bada kezka, irudiaren aroan ez ote den infrasoinu moduko bat, bertan egon baina inork entzun gura ez duen zera bat.

Durangoko Azokako standean ordu askoz egoteko ohitura hartu duzue, zaleei sinatzen zein argazkiak ateratzen. Talde moduan zer eskaintzen dizuete egun hauek? Izaten al duzue astirik hartzaile moduan Azokaz disfrutatzeke?

Autoekoizpenean denetik egitea tokatzen zaizu eta horietako bat gure standean egindako lana defendatzea da. Nekagarria suerta daiteke, baina, era berean, gogobete egiten zaitu zaleekin bat egin eta euren iritziak bertatik bertara jasotzeak.

Ahotseneak 10 urte egin ditu. Jaio zenetik, aparteko bizitasuna eman dio Azokari. Zuek zapatuan arituko zarete, 11:00etan. Gogoz zaudete?

Izugarria da Ahotsenean egongo den egitaraua, zenbat eta zenbat sortzaile dabilen gurean eskaintza interesgarriak partekatzen. Erabakigarria izan da Ahotsenean Azokaren ardatza salerosketa hutsetik beste ikuspegi batzuetara lerratzeko.







Ikasiz Goza Ezazu !

www.aquariumss.com

AQUARIUM